

BUSTURIALDEA URDAIBAI ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA

2025eko iraila

AURKIBIDEA

SARRERA	2
1. TESTUINGURUA ETA ERREFERENTZIA-ESPARRUA	3
1.1 Aurrekariak eta ikuspegia.....	3
1.2 Plana egiteko prozesuaren azalpena.....	4
2. ESKUALDEAREN DIAGNOSTIKO INTEGRALA	7
2.1 EKONOMIAREN SUSPERTZEA ETA DIBERTSIFIKAZIOA.....	9
2.2 ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA.....	14
2.3 GIZARTE-KOHESIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK.....	18
2.4 HIRI- ETA INGURUMEN-BERRONERATZEA.....	23
2.5 LURRALDEA ETA JASANGARRITASUNA	25
2.6 OINARRIZKO AZPIEGITURAK.....	28
3. BUSTURIALDEA - URDAIBAIEN ETORKIZUKEKO ERRONKAK	31
4. ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN TRAKZIO PROIEKTUAK	34
4.1 1. Gai-arloa. Mugikortasuna eta konektibitatea	36
4.2 2. Gai-arloa. Etxebizitza eta gizarte kohesioa.....	38
4.3 3. Gai-arloa. Sustapen ekonomikoa eta ehun produktiboari lotutako kalitatezko prestakuntza.....	39
4.4 4. Gai-arloa Aktibo natural, kultural, historiko eta identitarioak.....	42
4.5 Proiektu estrategiko bideratzailea. Eskualdeko agentzia.....	43
5. BESTE PROIEKTU ESTRATEGIKO BATZUK ETA BALIABIDE ARRUNTETATIK JORRATUKO DIREN JARDUERAK	44
5.1 Beste proiektu estrategiko batzuk	44
5.2 Baliabide arruntetatik jorratuko diren jarduerak	44
6. ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK	45
7. GOBERNANTZA ETA PLANAREN AGINTE-KOADROA	46
7.1 Gobernantza-eredua.....	46
7.2 Gobernantza-ereduaren eragileak eta funtzioak.....	46
7.3 Jarraipen-dinamika.....	47
7.4 Aginte-koadroa.....	47
8. ERREFERENTZIAK	50

SARRERA

Hurrengo orrialdeetan Busturialdea - Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoaren azken dokumentua aurkezten da.

Plana egiteko prozesuak lurralde eragile eta ordezkarien, adituen eta Planaren Talde Eragileko kideen (eskualdeko 20 udalek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak osatuta) arteko parte hartzea, solaskidetza eta ikuspuntuak partekatzea sustatzeko gune gisa sortu eta ulertu da hasieratik.

Udalerrri bakoitzaren ekarpen eta berezitasunetatik abiatuta eraiki da, eta eskualde osoaren ongizatea eta etorkizuna indartzera bideratuta dago. Hori egiteko, hainbat mekanismo jarri dira abian, parte-hartze zabala lortuz.

- Talde Eragilearen 3 bilera eskualdeko 20 udaletako alkateekin eta arduradun politikoeekin, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.
- Eskualdeko Partaidetzarako 2 Foro, 200 pertsona ingururen parte-hartzearekin.
- Herritarrek parte hartzeko 2 mugarri, 600 parte-hartzaile baino gehiagorekin.
- 50 bilera baino gehiago eskualdez gaindiko erakundeetako arduradun teknikoekin.

Elkarrizketarako eta lankidetzara publiko-pribatuko dinamiketarik, herritarrengandik jasotako ideia eta ekarpenetatik eta garatutako egingarritasun tekniko-ekonomikoaren azterketetatik abiatuta, 13 trakzio proiektu lehenetsi dira. Eskualdea 2030era eraldatzeko gaitasuna duten 13 proiektu, planaren indarraldiaren barruan. Gainera, beste proiektu eta ekimen batzuk identifikatu dira, eskualdearen etorkizuneko erronkei ere erantzuten dietenak, eta denboran zehar jorratuko direnak, kudeaketa arruntetik abiatuta.

1. TESTUINGURUA ETA ERREFERENTZIA-ESPARRUA

1.1 Aurrekariak eta ikuspegia

2024ko otsailean, Eusko Jaurlaritzako gobernu-kontseiluek eta Bizkaiko Foru Aldundiak Busturialdea-Urdaibai eskualderako erakundeen arteko Plan Estrategiko bat definitzea eta garatzea erabaki zuten, Lehenetsuneko Jarduketa-Eremutzat (LJE) jotako eskualdeetan erabilitako ikuspegi metodologiko berberarekin. Beste eskualde batzuekin alderatuta, Busturialdea-Urdaibaik balio handiko elementu bereizgarria du, Euskadiko Biosfera Erreserba bakarra hartzen baitu. Horrek ezaugarri bereizgarriak ematen dizkio eskualdeari gainerako eskualdeekin alderatuta, eta, aldi berean, eskualdearen garapen ekonomikoa eta herritarren ongizatea baldintzatzen ditu; beraz, hausnarketa, azterketa eta jarduera espezifikoa behar ditu.

Lehenetsuneko Jarduera Eremuetan erabilitako metodologiak ezaugarri hauek ditu:

- Eskualdeko erakunde, enpresa, gizarte eta ezagutza mailako eragile garrantzitsuak kontuan hartuko dituen parte-hartze prozesu zabal baten ondorioa izatea.
- Eskualdearen garapen sozioekonomikoa modu integralean aztertzea.
- Ikuspegi estrategiko partekatua lortzea, trakzio proiektuak identifikatuz.

Azkenik, 2024ko maiatzean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak abian jarri zuten Busturialdea-Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoa (EPE) egiteko prozesua, Lehenetsuneko Jarduketa Eremuak bultzatzeko Planaren barruan.

EPEren helburu nagusia eskualderako programa eraldatzaile bat definitzea eta bultzatzea da, Busturialdea-Urdaibaiko garapen sozioekonomikoa helburu duten trakzio proiektu kopuru mugatu bat identifikatuta. Ikuspegi integral batetik eraikitzen da, eskualdeko garapen iraunkorren eta bizi-kalitatearen eragiten duten esparruak barnean hartuta. Zehazki, sei dira EPEn lantzen diren esparruak: ekonomiaren suspertzea eta dibertsifikazioa, enplegua eta prestakuntza, gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak, hiri- eta ingurumen-berroneratzea, oinarriko azpiegiturak eta lurraldea eta iraunkortasuna.

Gainera, planaren elaborazioaren, inplementazioaren eta jarraipenaren filosofia parte-hartze zabalak markatzen du. Prozesuaren fase desberdinetan, parte hartzeko hainbat mekanismo jarri dira abian. Mekanismo horiei esker, ideiak, informazioa eta ezagutza jaso dira, prozesua funtsezko mugarrietan aberastuz.

Hori guztia hainbat mailatako lidergo instituzionalean eta eskualde-ikuspegiaren oinarrituta: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta eskualdeko 20 udalak.


EPEren funtsezko elementuak



1.2 Plana egiteko prozesuaren azalpena

EPE egiteko prozesua hiru fase orokorretan egituratu da. Horietan parte hartzeko hainbat gune konbinatu dira, Planaren eraikuntza kolektiboa eta adierazgarria bermatu dutenak.

Busturialdea – Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko prozesua



Prozesua hiru mailatako gobernantza-ereduan oinarritu da:


- Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta eskualdeko udalek osatutako Talde Eragileak sustatu eta gidatu du.
- Eskualdeko eragile adierazgarrien (eskualdearentzat erreferentzia diren erakundeak eta pertsonak) parte hartzea, Eskualdeko Partaidetza Foroetan.
- Herritarren ekarpenak.

Lehenengo fasean eskualdearen diagnostiko integrala egin da, erronka estrategikoak identifikatuz eta bigarren faserako oinarri partekatu bat ezarriz, trakzio proiektu identifikatzeko.

EPEren premisekin jarraituz, egindako azterketa integrala izan da, sei dimentsio handitan egituratua (diagnostikoaren xehetasuna 2. atalean).

Diagnostikoan aztertutako sei dimentsioak

Busturialdea – Urdaibai Eskualdeko diagnostiko integrala



Diagnostiko integraletik eskualderako erronka estrategikoak eratorri ziren, hasieratik trakzio proiektuen identifikazioa eta balorazioa gidatu dutenak. Talde Eragileak diagnostikoa eta erronka estrategikoak baliozkotu ondoren, bigarren fasean abian jarri ziren aurreikusitako partaidetza-mekanismoak. Talde Eragilearen lidergoak, Eskualdeko Partaidetza Foroak eta herritarren parte-hartzeak bermatu dute EPEk oinarri sendoa, inklusiboa eta eskualdeko beharrekin lerrotatua izatea.

Eskualdeko lehen Partaidetza Foroa eta herritarren parte-hartzearen lehen mugarrria trakzio proiektuak identifikatzera bideratuta egon ziren:

- Eskualdeko Partaidetza Foroa EPEren garapenarekin lotutako gai zehatzen inguruko lantaldeetan egituratu zen, eskualdeko (eta eskualdeaz gaindiko) ekosistemako eragile eta pertsona garrantzitsuak barne hartuta, identifikatutako gaietan sakontzea. Zehazki, bost lan-mahaitan garatu zen dinamika, diagnostikoa identifikatutako erronkei erantzunez. Bilera hauetan 120 pertsona inguruk hartu zuten parte, jorrotutako gai-eremuetan esperientzia eta ezagutza espezializatua zutenak, eta prozesurako balio handiko partaidetza- eta lankidetzak-dinamika publiko-pribatua sortu zen.

Eskualdeko Partaidetza Foroan erabilitako lan-mahaiak

1.MAHAIA. Hiri-berroneratzea, etxebizitza, talde kalteberen arreta eta zerbitzu publikoak	2.MAHAIA. Mugikortasuna eta bizi-kalitatean eragina duten azpiegiturak	3. MAHAIA. Mikroenpresen prestakuntza, enplegua, autoenplegua eta lehiakortasuna	4.MAHAIA. Ondare naturala, historikoa eta kulturala, nortasuna eta turismoa	5.MAHAIA. Enpresa-lehiakortasuna, ekintzailtza aurreratua eta sustapen sektoriala
<ul style="list-style-type: none"> Hiri-berroneratzea Etxebizitza Gizarte-zerbitzuak eta kolektibo kalteberen arreta Zerbitzu soziosanitarioak Osasun-zerbitzuak Herritarrentzako beste zerbitzu publiko batzuk: udal-instalazioak, oinarriko zerbitzuak udalerrri guztietan, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> Errepideak Garraio publikoak: trenbidea, autobusa, intermodalitatea Bidegorri sarea Ura hornitzeko eta saneatzeko sarea Hiri-hondakin solidoak Energia Besteak: uholde-arriskua murrizteko esku-hartzeak, landa-eremuetako konektagarritasun digitala eta abar. 	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketa Beste prestakuntza-eremu batzuk: prestakuntza duala, graduondokoak eta udako ikastaroak, ziklo laburreko prestakuntzak garatzea, ikastetxeetan bokazioak sustatzea, etab. Enplegua sustatzea Autoenplegua Mikroenpresen lehiakortasuna, merkataritza eta ostalaritza 	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumena biziberritzea: basoak berreskuratzea, basoak kudeatzeko ekimenak, padurak, arroak, akuiferoak lehengoratztea, etab. Lehen sektorea bultzatzea Kultura, ondarea eta nortasuna Turismoa 	<ul style="list-style-type: none"> Lurzoru industrialia Atun-kontserba sektorea Zuraren sektorea Ekintzailtza aurreratua Lehen sektorea bultzatzea Beste sektore batzuk: Ontzigtza sektoreko jarduera osagarriak, ekonomia zirkularra eta berdea, ingurumena, energia, fabrikazio aurreratua, osasuna, elikadura, kultura- eta sormen-industriak, etab. I+G jarduerak

- Herritarren parte-hartzearen lehen mugarrria Eskualdeko Partaidetza Foroaren ondoren aktibatu zen, Busturialdea-Urdaibaiko herritarrei EPEren prestakuntzan aktiboki parte hartzeko aukera eskainiz. Web galdetegi baten bidez egin zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (Eusko Jaurlaritzak eta eskualdeko udalek zabaldua), herritarren proiektuen proposamenak jasotzeko. Galdetegia diagnostikoan identifikatutako erronken inguruan egituratu zen, hurrengo galderan oinarrituta: Zer proiektu edo ekimen proposatzen dituzu Busturialdea-Urdaibai eskualdeak dituen erronkei aurre egiteko? Lehen mugarri horretan 423 pertsonak hartu zuten parte, eta 3.890 ekarpen jaso ziren guztira.

Trakzio proiektuak lehenesteko prozesua Talde Eragilearekin hasi zen. Talde honetan trakzio proiektu potentzialen zerrenda partekatu zen, eta udalerrietan atxikimendu handiena zuten proiektuak identifikatu ziren.

Helburu bera lortu nahi izan zen beste bi partaidetza-mekanismoetan ere: Eskualdeko Partaidetza Foroaren Bigarren bileran eta herritarren partaidetzarako bigarren mugarrrian.

- Eskualdeko Partaidetza Foroaren bigarren bileran 70 pertsona bildu ziren, balizko trakzio proiektuak eskualdean izan dezaketen eraginari buruzko iritzia jasotzeko.
- Herritarren parte-hartzearen bigarren mugarrria Eskualdeko Partaidetza Foroaren ondoren aktibatu zen, lehen mugarrrian erabilitako tresna beraren bidez. Guztira 216 pertsonaren iritzia jaso zen, trakzio proiektu potentzialen eraginari buruzko iritzia bilatuz.

Azken fasean, Talde Eragilean lehenetsitako proiektuak kontrastatu ziren.

Prozesu osoan zehar, eskualdeaz gaindiko erakundeetako arduradun eta teknikariek bilerak egin ziren, proiektuak identifikatzeko eta lehenesteko, baita egingarritasun tekniko-ekonomikoa aztertzeko ere.

Oro har, Talde Eragilearen lidergoak, Eskualdeko Foroan eragileen parte hartzeak eta herritarren parte hartzeak EPEren oinarri sendoa, inklusiboa eta eskualdeko beharrekin lerrokatua egotea bermatu dute.

2. ESKUALDEAREN DIAGNOSTIKO INTEGRALA

Hurrengo orrialdeetan, Busturialdea-Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko lehen zereginetako bat izan den diagnostiko integralaren laburpena aurkezten da. Diagnostiko honek Eskualdearen egoeraren irudi integrala eman nahi du sei dimentsiotatik: ekonomiaren suspertzea eta dibertsifikazioa, gizarte kohesioa eta zerbitzu publikoak, enplegua eta prestakuntza, hiri- eta ingurumen-berroneratzea, lurraldea eta jasangarritasuna eta oinarrizko azpiegiturak.

Aurkeztutako ondorioak hainbat diagnostikoren, aurrez egindako plan sektorialen eta estatistika-iturriren azterketatik sortu dira.

Busturialdea – Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoaren aurretik egindako planak eta diagnostikoak

Estrategia eta plan sektorialen ibilbidea



Urdaibaiko Biosfera Erreserba-ko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua
1998



Urdaibai Biosfera Erreserbaren Garapen Iraunkorrerako Estrategia
2009



Landa Garapenerako Eskualdeetako Programa 2015-2020
2015



Gernika-Markinako (Busturialdea-Artibaiko) Lurralde Plan Partziala
2016



Urdaibai Biosfera Erreserba-ko Turismo Jasangarriaren Europako Gutuna
2019



Busturialdea-Urdaibai 2030 Nekazaritzako Elikagaien Estrategia
2022



Busturialdea-Urdaibaiko nekazaritzako elikagaien sektorea dinamizatzeke ekintza-plana
2023

Eskualdeko beste plan eta diagnostiko berriak



Bizkaia Orekan Sakonduz programaren esparruan egina eta BFA-DFBk finantzatua



Busturialdea-Urdaibai eskualdea 20 udalerrik osatzen dute: Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gauteigiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.

Eskualdeko biztanleria osoa 46.616 biztanlekoa da 2024an (% 51 emakumeak eta % 49 gizonak), hau da, Bizkaiko biztanleriaren % 4,1a eta Euskadikoaren % 2,1a. Udalerriak kontuan izanda, Gernika-Lumok eta Bermeok (16.831 eta 17.053 biztanle, hurrenez hurren) biztanleen % 73a hartzen dute, eta gainerako 18 udalerriek gainerako % 27a (Mundaka, Busturia eta Muxika bakarrik dira 1.000 biztanletik gorakoak)¹.

Eskualdeak 280 km² inguru hartzen ditu, hau da, Bizkaiko azalera osoaren % 12,6a eta Euskadikoaren % 3,9a.

Busturialdea-Urdaibai kontrastez betetako eskualdea da, eta bertan, analisi integral bat egitean aintzat hartu beharreko hainbat errealitate bizi dira: Gernika-Lumo eta Bermeoren arteko aldeak, udalerrri handien eta udalerrri txikien artekoak, eskualdearen eta ezkeraldearen artekoak eta baita hiri- eta landa-inguruko udalerrrien artekoak ere.

- Bi udalerrri nagusiei dagokienez, Gernika-Lumok Bermeok baino industria-jarduera handiagoa eta langabezia-tasa txikiagoa du. Azken horrek errenta- eta enplegu-maila txikiagoak ditu, eta arrantza-jarduerari eta portuari lotutako nortasun handia.
- Kontraste esanguratsuak daude udalerrri handienen (Gernika-Lumo eta Bermeo) eta udalerrri txikien artean. Lehenengoek zerbitzu publikoen eskaintza eta txikizkako merkataritzaren dentsitate handiagoa dute. Txikiek, aldiz, Gernika-Lumok eta Bermeok baino errenta-maila (Elantxobek eta Ea izan ezik), jarduerata (Elantxobe, Ea, Busturia eta Mundaka izan ezik) eta mikroenpresetako enplegu hobeak dute (ostalaritza-sektorearen ondorioz batez ere).
- Bi aldeei dagokienez, ezberdintasun nagusia irisgarritasuna da. Eskualdeko udalerriek barne-mugikortasuneko defizit handiak dituzte: Bizkaibusen maiztasun txikiagoa eta trenbide-konexiorik ez. Ezkerraldeko udalerriek Bizkaibusen maiztasun hobeak eta trenbide-konexioa dituzte (baina orduko bi treneko maiztasunarekin).
- Azkenik, eskualdeak baditu “hiri-izaerako” udalerrri batzuk, sozializatzeko espazio publiko gehiago dituztenak (bai kanpoaldean: plazak, parkeak eta lorategiak, bai barrualdean: kultur etxeak, ikastetxeak, eguneko zentroak, etab.); “landa eremuko” udalerrietan, berriz, nekazaritza sektorea da nagusi, populazio-dentsitate txikia dago, familia bakarreko etxebizitzak eta abiadura handiko Interneteko estaldura txikiagoa.




2.1 EKONOMIAREN SUSPERTZEA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Egitura ekonomikoa

Busturialdea - Urdaibaik 1.442 milioi euroko BPGa sortu zuen 2022an, hau da, Bizkaiko BPGaren % 3,3a (eta Euskadiko BPGaren % 1,7a), eskualdeko biztanleriak Bizkaian duen pisua (4,1%) baino nabarmen txikiagoa. Honek agerian uzten du eskualdeak Bizkaiko ekonomian duen pisu mugatua. Gainera, beste aldi batzuetan (1996, 2000, 2012) izan zuen pisuaren (% 3,5) azpitik dago, eta euskal ekonomian duen pisuak, berriz, egonkorrago jarraitu du % 1,6-1,7ko tartean.


BPGren bilakaera prezio arruntetan
1996-2022; milioi eurotan



Iturria: Eustat.

Busturialdea-Urdaibai Euskadiko biztanleko BPG txikiena duen eskualdeetako bat da (soilik Enkarterri, Ezkerraldea eta Lea-Artibairen aurretik). Zehazki, 2023an Eskualdeko biztanleko BPGaren balioa 33.190 eurokoa izan zen, Euskadiko batez bestekoa baino % 21 txikiagoa eta Bizkaiko batez bestekoa baino % 19 txikiagoa.

Biztanleko BPGren bilakaera prezio arruntetan
2000-2023; eurotan



Iturria: Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz; Eustat.


Udalerri mailan aldeak daude.

- Ajangiz (Maier enpresaren kokalekua) da Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoa gainditzen duen bakarra.
- Eskualdeko batez bestekoa gainditzen duten udalerririk Muxika (Ebaki enpresaren kokalekua) eta Bermeo (bertan egoitza duten armadoreak daudelako) dira.
- Eskualdeko gainerako udalerriek biztanleko BPG eskualdeko batez bestekoa baino txikiagoa dute (eta, beraz, Euskadiko eta Bizkaiko batez bestekoa baino txikiagoa).

BEGaren banaketaren azterketak Busturialdea-Urdaibaiko egitura ekonomikoari buruzko hainbat ondorio islatzen ditu, bai orokorrean bai udal mailan:

- Lehen sektorearen pisua (%17,0) nabarmentzen da Euskadi eta Bizkaiarekin alderatuta (% 0,9 - % 1,0), atunaren sektoreko armadoreek Bermeon duten egoitzaren efektuarengatik. Hala ere, sektore hori atzeraka doa 2017tik.
- Eskualdeak Lurralde osoak baino desindustrializazio-prozesu nabarmenagoa izan du azken hamarkadan. Gaur egun industria-energiaren sektorean pisu txikiena duen eskualdeetako bat da, Bilbo Handiaren eta Enkarterriren aurretik. Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoarekin alderatuta, industria-energia sektorearen pisua Euskadiko batez bestekoa baino ehuneko 6,8 puntu txikiagoa da, eta Bizkaikoa baino 3 puntu txikiagoa.
- Busturialdea-Urdaibaiko hirugarren sektoreak Euskadi osoarenak baino pisu txikiagoa du (zerbitzuen sektorea guztizko BEGaren % 60a bada ere). Bilakaera positiboa izan du, 2008. urtetik 11,1 ehuneko-puntu hazi baita, eta eskualdeko ekonomiaren erdia baino gehiago izatek ia bi heren izatera igaro da.
- Sektore bakoitzeko enpleguari dagokionez, horietako bakoitzaren pisua BEGaren antzekoa da, eta lehen sektorea da alderik handiena duena (ehuneko 6 puntu gutxiago).

Busturialdea-Urdaibai, Bizkaia eta Euskadiko BEGaren banaketa jarduera-sektorearen arabera 2022; BEG osoaren gaineko %



Iturria: Eustat.

Udalerri mailan, berezitasun hauek nabarmentzen dira:


- Ajangiz (Maierren kokalekua) da industria-sektoreak pisu handiena duen udalerria. Biztanle gehien dituzten udalerrien artean, Gernika-Lumo eta Muxika dira industrializatuenak; txikien artean, berriz, Murueta, Arratzu eta Ereño nabarmentzen dira.
- Nekazaritza eta arrantzako sektorean, Bermeo nabarmentzen da, bertan egoitza duten armadoreak daudelako, baita Kortezubi, Nabarniz eta Morga ere, udalerririk txikien artean.
- Ibarangelun (% 81,5), Gautegiz-Arteagan (% 80,3) eta Sukarrietan (% 79,3) zerbitzuen sektoreak garrantzi handia du, orokorrean jarduera ekonomiko murriztua izateagatik.

Enpresa-ehuna

Eskualdeko enpresa-ehunean, nolabaiteko trakzio-gaitasuna duten zenbait enpresa eta sektore nabarmentzen dira: Maier (autogintza), Bermeon basea duten armadoreen taldea (Albacora, Atunsa, Echebestar, Inpesca, Nicra-7, Pevasa), hegaluzearen arrantza-tradizioari oso lotuta dauden kontserba-enpresen taldea (Arroyabe, Cusumano, Royo, Salica, Serrats, Toja, Urdaibai Kontserbak, Zallo) eta egurraren lehen eta bigarren eraldaketan diharduten enpresak (Ebaki eta Egoin).

Hala ere, Busturialdea-Urdaibaiko establezimenduen kopurua (3.184, 2023an) ia urtez urte murriztu da 2012tik (%13ko murrizketa, guztira), batez ere nekazaritza eta arrantza sektorean (-%35, 2012tik). Bizkaiarekin eta Euskadirekin alderatuta, eskualdeko establezimenduek, batez beste, langile gutxiago dituzte.

Establezimendu kopuruaren bilakaera eta jarduera-sektorearen arabeko banaketa Busturialdea-Urdaibain 2012-2023; establezimendu kopurua, establezimendu guztien %



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Jasangarritasunaren udal adierazleak.

Gainera, milioi bat eurotik gorako fakturazioa duten 110 enpresen azterketatik² ondorio hauek atera dira: Euskadirekin eta Bizkaiarekin alderatuta, Eskualdeko enpresak txikiagoak dira bai fakturazioari dagokionez, bai langile-kopuruari dagokionez, eta portaera okerragoa dute ekitaldiaren emaitzari dagokionez.

Gainera, ekintzailtza-tasak eta establezimendu berrien sorrerak Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoaren azpitik jartzen dute eskualdea.

Horrenbestez, ondorioztatzen da Busturialdea-Urdaibairen enpresa-dimentsioa txikia dela (Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoarekin alderatuta), eta establezimenduen batez besteko tamaina eta ekintzailtza-tasa batez bestekoa baino txikiagoa da.

Jarduera ekonomikoetarako espazioa

Busturialdea-Urdaibaik, gaur egun, 28 industrialde eta jarduera ekonomikoetarako gune ditu, eta horietan 310 enpresa daude, % 92 inguruko okupazio-mailarekin.

2023an, Eskualdean jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzorua % 0,7 ziren, Bizkaian (% 2,3) eta Euskadin (% 1,9) baino gutxiago. Gaur egun, Bermeo-Mundaka eta Gernika-Lumo-Muxikak polarizatzen dituzte jarduera ekonomikorako lurzorua.

Espazio hori handitzeko, jarduera ekonomikorako espazio urbanizagarri bakarrak Errigoitin eta Muxikan daude, eta horrek zaildu egiten du enpresa berriak Eskualdera erakartzea.³ Era berean, Bermeoko portuan lurzorua aska daiteke, Plan Bereziaren hirugarren aldaketaren barruan.

I+G+B jarduera

Eskualdeko enpresetako BPGaren eta I+G+Bn ari diren langileen gaineko gastua Bizkaiko eta Euskadiko batez bestekoaren gaintik zegoen 2021ean, nahiz eta adierazle hori eskualdeko enpresa traktoreen eraginak baldintzatzen duen. Zehazki, 10 langile edo gehiagoko

establezimenduen % 36k berrikuntza (produktuarena edo/eta prozesuarena) egiten dute eskualdean, Bizkaian (% 35) eta Euskadin (% 33) erregistratutakoa baino zertxobait gehiago.⁴

Gainera, garrantzitsua da Sukarrietan egoitza duen Azti-ltsas eta Elikagaien Ikerketa Zentroaren presentzia aipatzea.

Arreta sektore espezifikoeetan. Turismo-sektorea

Busturialdea-Urdaibai Bizkaiko jomuga turistiko nagusietako bat da, ondare kultural eta historiko eskaintza erakargarri batekin. Adibidez, Gernikako Juntetxeak urtero 63.109 bisita jasotzen ditu (2023ko datuak)⁵, Gernikako Bakearen Museoak 60.562 bisita, gehienak Euskaditik kanpokoak (2023ko datuak)⁶ eta Omako Basoak 73.998 bisita (2023-2024ko datuak)⁷; Gaztelugatxeko San Juan, berriz, lehen mailako erakarpenturistikoko puntu bihurtu da azken urteotan, urtean 350.000 bisitari baino gehiagorekin uhartera eta ermitara (2024 datuak)⁸. Busturialdea-Urdaibai natura-eta kosta-eskaintzagatik ere nabarmentzen da, bisitari asko izaten baititu, batez ere udan.

Gaua igarotako bisiten estatistiketan arreta jarrita, 2022an 53.904 pertsona-sarrera eta 112.367 gauraldi erregistratu ziren. Hala ere, zifra horiek atzera egin dute 2019tik (-%12 sarreretan eta -%16 gauraldietan)⁹, Bizkaiko hazkundearen aldean.

Eskaera horri erantzuteko, Eskualdean jarduera turistikoko 674 establezimendu daude erregistratuta¹⁰: erabilera turistikoko etxebizitzak (530), erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak (51), hotelak (27), landetxeak (20), apartamentu turistikoak (13), nekazalturismoak (10), aterpetxeak (5) edo kanpinak (2), baina baita bidaia-agentziak (14) edo turismo aktiboan eta abentura-turismoan aritzen diren establezimenduak ere (3). Establezimendu horiek 2.367 pertsona enplegatzen dituzte (ostalaritzan eta turismoarekin lotutako beste jarduera batzuetan eragindako enplegua ez da sartzen).

Eskualdeko 1.000 biztanleko turismo-ostatuoko plazen tasa (30,4) Bizkaiko (19,0) eta Euskadiko (25,2) batez bestekoa baino handiagoa da¹¹. Eskaintzaren % 38 ostatu profesionali dagokie, % 55 erabilera turistikorako etxebizitza partikularrei eta % 7 erabilera turistikorako etxebizitza partikularretako logelei. Iraupen laburreko etxebizitza turistikoen (ez-profesionalak) hazkundera, batez ere Bermeon eta Mundakan, tentsioa sortzen ari da etxebizitzaren merkatuan.

Sektore turistikoak aurre egin behar dion beste erronketako bat bisitarien joan-etorria kudeatzeko gaitasuna eta interes orokorreko puntuetan pilatzea da, aparkalekuen bidez, turismora eta bideratutako garraio publikoaren eskaintza nahikoaren bidez eta zerbitzu publikoen bidez.

Erronka horiei aurre egiteko, Eskualdea turismoa sustatzeko ahaleginak handitzen ari da iraunkortasunaren ikuspegitik. Zehazki, 2019tik modu koordinatuan lan egiten ari da (Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzua, Urremendi eta sektore pribatua) EUROPARC Fundazioaren Naturagune Babestuetan Turismo Jasangarriaren Europako Gutunaren (TJEG) esparruan.

Arreta sektore espezifikoeetan. Lehen sektorea

Eskualdeko baxurako erauzketa-sektoreak (Bermeoko Arrantzaleen Kofradian bilduta dago) 24 ontziko flota du, kanpainan hainbat espezie arrantzatzen dituztenak (batez ere berdela, hegaluzea eta antxoa). Bermeon lehorreratutako tonak murriztu egin dira 2000ko hamarkadatik, baina gorakada txiki bat izan du 2021etik¹². Zehazki, 2023an, 4.190 tona lehorreratu dira Bermeon (1.652 tona berdel, 1.535 tona antxoa, 828 tona hegaluze eta 176 tona beste batzuk).

Nekazaritza-sektoreari dagokionez, Busturialdea-Urdaibaik 531 ustiategi ditu erroldatuta, eta erabilitako nekazaritza-azalera 3.285 hektareakoa da (erroldatutako azalera osoaren % 82,1)¹³. Eskualdeak baldintza klimatiko eta agronomiko egokiak ditu eredu jasangarrietan eta kalitate handiko tokiko elikagaietan (babarruna, piperra, txakolina) kalitatezko nekazaritza ekoizteko.

Azkenik, Eskualdean, baso-azalera 27.854 hektareakoa da, Bizkaiko azalaren %12,5 eta Euskadiko azalera osoaren %4a osatuz, eta nagusiki merkataritza-aprobetxamendua duten landaketa-basoek osatzen dute (intsinis pinua eta eukaliptoa, nagusiki). Baso-jabetza adineko jabe txikien kopuru handi batean zatituta dago, eta jabetza publikoa azalaren %10a baino ez da. Horrek zaildu egiten du basoen kudeaketa aktiboa eta eraginkorra, eta bertan behera uzteko arriskua dakar, belaunaldien arteko errelebo faltarengatik.¹⁴

Eragile dinamizatzailleak

Azkenik, aipatu behar da Busturialdea-Urdaibain ez dagoela ekonomia sustatzeko eskualdeko agentziarik (beste eskualde batzuetan dagoen bezala), baina ekonomia dinamizatzeko gaitasuna duten hainbat eragile daudela: Urdaibaiko Erreserbaren Patronatua, Bermeo Tuna World Capital, U-BAI, Urremendi, Lanbide Ekimenak eta Bermeoko Behargintza.

Adierazle nagusien laburpen-taula

EGITURA EKONOMIKOA

ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2015-AUE)
Biztanleko BPG (€)	2023	42.082	40.857	33.190	↑
Industriaren eta energiaren sektoreko BEG-aren pisua (%)	2022	% 24,2	% 20,4	% 17,4	↓
Lehen sektoreko BEGd-aren pisua (%)	2023	% 0,9	% 1,0	% 17,0	↑

ENPRESA-SAREA ETA I+G JARDUERA

ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2015-AUE)
Enpresen batez besteko tamaina, langile kopuruaren arabera	2022	16,3	14,5	14,2	↑
Establezimendu berrien sorkuntza tasa (establezimendua 1.000 biztanleko)	2022	5,9	6,1	4,9	↓
Enpresen I+G gastua BPGrekiko (%)	2023	1,7	1,4	1,6	↑

JARDUERA EKONOMIKORAKO GUNEAK

ADIERAZLEA	AUE	Busturialdea-Urdaibai
Industrialdeen azalera (km ²)	2023	2,5
Industrialdeetako enpresak (n ^o)	2023	310
Industrialdeen okupazio-tasa (%)	2023	92%

AUE: Azken Urte Erabilgarria

2.2 ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA


Enplegua

Busturialdea-Urdaibaik 21.857 biztanle aktibo ditu 2023an (% 50,6 gizonak eta % 49,4 emakumeak); horietatik 20.069 okupatuta daude (% 50,8 gizonak eta % 49,2 emakumeak), eta 1.788 langabezian (% 47,4 gizonak eta % 52,6 emakumeak)¹⁵.

Langabezia-tasa Euskadikoa eta Bizkaikoa baino txikiagoa da, % 8,2koa 2023an. Eskualdeak, historikoki Euskadiko batez bestekotik hurbil egon denak eta 2015ean % 17ko maximoetara iritsi denak, beherazko joera izan du azken urteotan, pandemiaren garaian izan ezik (2020-2021).

Hala ere, 2022ko okupazio-tasa (% 49,5) ez da iristen Euskadiko (% 51,3) eta Bizkaiko (% 50) batez bestekora.¹⁶

Langabezia-tasaren bilakaera 2010-2023; %



Iturria: Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz; Eustat. Jardueraren udal-estatistika.

Bizkaiko beste eskualde batzuekin alderatuta, langabezia-tasa Bilbo Handian eta Enkarterrin baino txikiagoa da, baina gainerako eskualdeetan baino handiagoa.


Udalerrri mailan, hau azpimarratu behar da:

- Bi udalerrri nagusien arteko aldea: Gernika-Lumok eskualdeko batez bestekoa baino langabezia-maila txikiagoa du, Bermeok ez bezala.
- Oro har, udalerrri txikiak eskualdeko batez bestekoaren azpitik daude, salbuespen batzuekin (Ea, Ibarrangelu, Errigoiti eta Sukarrieta).

Bestalde, Busturialdea-Urdaibaiko gazteen (16-24 urte bitartekoak) egoerak ere Euskadiko eta Bizkaiko batez bestekoaren azpitik jartzen du Eskualdea okupazio-tasari dagokionez (% 23,5 vs % 28,9 eta % 25,9), zifra hori azken urteetako altuena den arren¹⁷.

Azkenik, bizi diren udalerrriaren eta lan egiten duten udalerrriaren arabera Gizarte Segurantzako afiliazio-tasaren arteko aldea nabarmendu behar da. Horrek erakusten du herritar askok euren jardura profesionala eskualdetik kanpo egiten dutela: Ajangizek, Muruetak eta Sukarrietak bakarrik dute saldo positiboa (hor daude Maier edo Muruetako ontziola bezalako enpresak).


Gizarte Segurantzako afiliazio-tasaren konparazioa, bizi den udalerrriaren eta lan egiten den udalerrriaren arabera
2009-2022; 16 urte eta gehiagoko biztanleen %



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Jasangarritasunaren udal adierazleak. Ekonomia/Lehiakortasuna.

Azken datu hau eskualdeko biztanleria landunaren datuak eta eskualdeko establezimenduetan enplegatutako pertsonen kopurua alderatzen badira ere ikus daiteke; izan ere, aldea 6.500 pertsonatik gorakoa izan zen 2023an. Gainera, tartea handitu egin da 2020tik.

Biztanleria landuna eta eskualdeko establezimenduetan enplegatutako pertsonak
2010-2023; Milaka eurotan




Iturria: Eustat. Aktibitatearen udal estatistika eta Jarduera ekonomikoen direktorioa.

Prestakuntza

Busturialdea-Urdaibaik lehen eta bigarren hezkuntzako eskaintza zabala eta dibertsifikatua du (8 HLHI, 5 HLBHIP eta 3 BHI). Hala ere, Ean dagoen ikastetxe bat izan ezik, eskaintza osoa ezker aldean dago, eta horrek zailtasunak dakarzkie herritar batzuei. Lanbide Heziketaren eskaintza gutzia 5 zentrotan biltzen da.

Biztanleriaren ikasketa-mailak hobera egin du 2010etik, Bizkaiaren eta Euskadiren ildotik. 2021ean, 10 urtetik gorako biztanleen % 26,9k unibertsitate-ikasketak amaituta zituen, Bizkaiaren pixka bat azpitik (% 27,6) eta Euskadiko batez bestekoaren (% 26,7) antzera. Lanbide Heziketako ikasketak dituzten biztanleei dagokienez, Eskualdea Bizkaia eta Euskadi baino pixka bat beherago zegoen 2021ean, bigarren mailako ikasketak bete dituzten biztanleen artean bezala.

10 urtetik gorako biztanleen hezkuntza-maila 2010-2021; 10 urtetik gorako biztanleriaren gaineko % osoa



*Lehen Hezkuntza edo gutxiago: analfabetoak, ikasketarik gabeak edo lehen mailako ikasketak dituztenak
*Unibertsitatekoa: erdi-goi-mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten biztanleak

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza.

Eskualde mailan, Busturialdea-Urdaibai tarteko egoeran dago:

- Unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen posizio ona (% 27), Bilbo Handiaren (% 28) eta Plentzia-Mungiaren (% 36) azpitik bakarrik.
- Lanbide Heziketako ikasketak dituen biztanleria-maila txikiagoa izanik, Plentzia-Mungia bakarrik gainditzen du eta Bilbo Handiaren antzeko egoeran dago.
- Beste eskualde batzuen antzeko egoera, bigarren mailako ikasketak eta lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituzten biztanleei dagokienez.

Udalerrri mailan aldeak daude, eta ondorio hauek nabarmentzen dira:

- Gernika-Lumo eta Mundakako unibertsitateko ikasketak dituzten biztanleen ehunekoa Eskualdeko batez bestekoaren gainekoa da, ez ordea Lanbide Heziketaren kasuan.
- Bermeoren goi-mailako ikasketak dituen biztanleria-maila txikia nabarmentzen da.
- Udalerrri txikiak (salbuespenen batekin) batez bestekoaren gaitetik daude, bai unibertsitateko bai Lanbide Heziketako ikasketak dituzten biztanleei dagokienez: Ajangiz, Arratzu, Elantxobe, Ereño, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Murueta eta Nabarniz.

Azkenik, Eskualdean nabarmentzekoa da analfabetismoa ia erabat desagertu dela 10 urtetik gorako biztanleen artean 2021ean (% 0,1 gizonetan eta % 0,2 emakumeetan)¹⁸.

Eragile dinamizatzaileak

Eskualdean langabezia dauden pertsonen prestakuntzara eta laneratzera bideratutako jarduerak egiten dituzten bi eragile daude: Lanbide Ekimenak eta Bermeoaldeko Behargintza.

Adierazle nagusien laburpen-taula

ENPLEGUA

ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2015-AUE)
Langabezia-tasa (%)	2023	8,5	9,3	8,2	↓
Okupazio-tasa (%)	2023	52,3	51,2	50,3	↑
Gazteen (16-24 urte bitarteko biztanleak) okupazio-tasa (%)	2022	28,9	25,9	23,5	↑
Emakumeen genero-arrakala enplegu-tasan (%)	2023	7,0	7,0	4,5	↓

PRESTAKUNTZA

ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2010-AUE)
Unibertsitate-ikasketak dituzten 10 urtetik gorako biztanleak (%)	2022	26,7	27,6	26,9	↑
Lanbide Heziketako ikasketak dituzten 10 urtetik gorako biztanleak (%)	2022	20,0	19,3	19,0	↑
Analfabetismo-tasa (%)	2021	0,3	0,3	0,2	↑

AUE: Azken Urte Erabilgarria

2.3 GIZARTE-KOHESIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK


Egitura demografikoa

Busturialdea-Urdaibaik 46.616 biztanle ditu guztira 2024ko urtarrilean (% 51 emakumeak eta % 49 gizonak), eta kopuru hori aztertutako aldiko errekorra da. Biztanleria % 6,4 hazi da 2001. urtearen aldean, Euskadi osoko hazkundearen (+%6,2) antzekoa eta Bizkaikoa baino gehiago (+%2,5)¹⁹.

Udalerri mailan, Gernika-Lumon eta Bermeon biltzen da biztanleriaren % 73a (16.831 eta 17.053 biztanle, hurrenez hurren). Mundakak, Busturiak eta Muxikak 1.000 biztanle baino gehiago dituzte, eta gainerako 15 udalerriek 1.000 biztanle baino gutxiago (10 udalerrik 500 biztanle baino gutxiago dituzte).

Adin-taldean arabera, Bizkaiko eta Euskadiko datuen antzekoak erakusten ditu, eta 19 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoak zertxobait handiagoak dira.

Biztanleriaren banaketaren alderaketa adinaren arabera
2024 (urtarrilaren 1ean); biztanle guztiekiko %




Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Beraz, Eskualdeak Bizkaia osoak eta Euskadik baino biztanleria apur bat zaharragoa du, eta zahartze tasa (65 urtetik gorako biztanleriaren %) handitu egin da 2014. urtetik. Ildo horretan, tasa begetatiboaren joerak (1.000 biztanleko) biztanleriaren gero eta zahartze progresibo handiagoaren arazoa indartzen du: aztertutako aldirian (2008tik), Eskualdeko tasa begetatiboa negatiboa izan da, 2022an % -5,5era heldu arte.²⁰

Era berean, Busturialdea-Urdaibaik Bizkaia eta Euskadik baino 19 urtetik beherako biztanleria-tasa handiagoa du (% 17,8, Bizkaian % 16,9 eta Euskadin % 17,7), eta horrek eskualdeko biztanleria-piramidea "freskatuko" du etorkizun hurbilean.

65 urtetik gorako eta 19 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera
2013-2024 (urtarrilaren 1ean)



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Udalerri mailan:


- Gernika-Lumo, Muxika eta Kortezubi dira egoera onena duten udalerriak (19 urtetik beherakoen %a eskualdeko batez bestekoa baino handiagoa da, eta 65 urtetik gorakoen %a txikiagoa).
- Badago Eskualdeko batez bestekoa baino zaharragoak diren udalerrien beste multzo bat (65 urtetik gorakoen %a txikiagoa da), baina, aldi berean, udalerrri horietan biztanle gazteen pisua eskualdeko batez bestekoa baino txikiagoa dena: Bermeo, Gautegiz-Arteaga, Mendata eta Murueta.
- Azkenik, Eskualdeko eta Bizkaiko batez bestekoa baino egoera txarragoan dauden udalerrriak, bai gazteen bai adinekoen pisuari dagokionez: Mundaka, Busturia, Forua, Ea, Ibarrangelu, Errigoiti, Mорга, Sukarrieta, Elantxobe eta Ereño.

Azkenik, 2004. urteaz geroztik Eskualdeko migrazio-saldo garbiak biztanleria-irteerena baino immigrazio-kopuru handiagoa erakusten du, 2013. eta 2014. urteetan izan ezik, Bizkaiko eta EAEko joerekin bat etorrira. 2022an lortu zen aztertutako serie osoko migrazio-saldorik handiena.²¹

Errenta

Errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez, Eskualdearen 2022ko egoera (19.955 €) Bizkaiko (20.355 €) eta EAEko (20.855 €) batez bestekoaren antzekoa da.

Errenta pertsonal eskuragarriaren bilakaera
2001-2022; euroak




Iturria: Eustat.

Errenta pertsonal erabilgarriaren eta biztanleko BPGaren baterako azterketak, Euskadiren datuarekin alderatuta (Euskadiko Indizea = 100), hainbat ondorio esanguratsu islatzen ditu:

- Eskualdea Bizkaiko eta Euskadiko balioetara hurbiltzen da errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez (Euskadiko datuaren %96), baina arrakala handiagoa dago biztanleko BPGaren kasuan (%79).
- Bizkaiko beste eskualde batzuekin alderatuta, Busturialdea-Urdaibai errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez tarteko egoeran dago, Markina-Ondarroa, Enkarterri eta Arratia-Nerbioi gaindituta eta Bilbo Handitik gertu.
- Hala ere, 2005-2006 aldiarekin alderatuta, Eskualdeak hobera egin du aztertutako bi indizeetan, eta hori ez da gertatu beste eskualde batzuetan, hala nola Enkarterrin eta Arratia-Nerbioin.

Busturialdea-Urdaibairen eta Bizkaiko gainerako eskualdeen posizio erlatiboa Euskadirekiko, errentari eta BPGari dagokionez; 2005 (BPG), 2006 (Errenta); 2023 (BPG), 2022 (Errenta); Euskadiko Indizea = 100



Biztanleko BPG

Iturria: Eustat.

Udalerriei dagokienez, alde nabarmenak daude (kasu honetan, familia-errenta erabilgarriari dagokionez).

- Bermeon eskualdeko (eta Bizkaiko) batez bestekoaren azpiko errentak daude.
- Gernika-Lumok eta 1.000 biztanletik gorako gainerako udalerriek batez bestekoaren antzeko errentak dituzte.
- Udalerri txikietan (1.000 biztanletik beherakoak) biltzen dira familia-errenta erabilgarriaren maila altuenak, Elantxoben eta Ean izan ezik.

Desberdintasun-egoerak


Eskualdeak Euskadik osotasunean baino desberdintasun maila baxuagoak ditu.

Eskualdeko emakumeen egoeraren azterketak ondorio hauek islatzen ditu:

- Errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez, genero-aldea txikiagoa da Bizkaian eta Euskadin eta Bizkaiko gainerako eskualdeetan baino (Markina-Ondarroan izan ezik).
- Enpleguari dagokionez, 2023ko emakumeen langabezia-tasa (% 8,7) 2022koa baino ehuneko 1,4 puntu txikiagoa izan zen, 2015etik zifrarik txikiena izanda. Alde horretatik, Eskualdea Bizkaia eta Euskadi baino egoera hobean dago (% 10,5 eta % 9,7, hurrenez hurren).
- Okupazio tasari dagokion genero arrakala modu iraunkorrean murriztu da Eskualdean 2019tik, eta 4,5 puntukoa izan da 2023an. Bizkaiaren eta Euskadiren azpitik dago (7,0 kasu bietan), eta soilik Markina-Ondarroa (4,0) eta Plentzia-Mungia (4,4) baino gorago.

Emakumearen errenta erabilgarriaren eta genero-arrakalaren bilakaera


2001-2022; errenta pertsonal erabilgarria (eurotan); gizonen errenta pertsonal eskuragarriaren aurreko aldea (eurotan)



Iturria: Eustat.

Emakumearen enplegu-tasaren eta genero-arrakalaren bilakaera

2015-2023; %



Iturria: Eustat.

Pobrezia-egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen dagokienez, mila biztanleko DSBEaren onuradunen tasari erreparatuta, Busturialdea-Urdaibai Bizkaia eta Euskadi baino egoera hobean dago, baita Arratia-Nerbioi, Enkarterri eta Bilbo Handia bezalako beste eskualde batzuk baino hobeto ere.

Genero-ikuspegitik, 2022an DSBE jasotzen zuten emakumeen tasa gizonena baino handiagoa zen; hala ere, 2014. urtetik, alde hori murriztu egin da udalerrri guztietan. Ildo horretan, Busturialdea-Urdaibaik Bizkaia eta Euskadi baino egoera hobea du (DSBEa jasotzen duten emakumeen % 20,1 vs % 28,2 eta % 24,8 2022an, hurrenez hurren).²²

Herritarrentzako zerbitzuak

Herritarrentzako zerbitzuei dagokienez, azpimarratzekoa da zerbitzuak goiburuko udalerrietan kontzentratzen direla. Gainera, alderdi hauek nabarmentzen dira:²³

- Busturialdea-Urdaibaik ospitalea du Gernika-Lumon eta osasun-zentroak udalerrri guztietan, Ajangizen eta Kortezubin izan ezik.

- Eskualdeak egoitza-zentroen sarea du (adinekoentzat, desgaituentzat, gaixotasun mentala dutenentzat eta adikzioak dituztenentzat), baita eguneko zentroak ere hainbat udalerritan: Gernika-Lumon, Bermeon, Mundakan, Busturian, Ean, Foruan eta Kortezubin.
- Beste zerbitzu batzuei dagokionez, Eskualdeak bilakaera desberdina izan du 2008. urteaz geroztik: Bizkaian eta Euskadin baino haur hezkuntzako unitate gehiago ditu, liburutegietan dokumentu gehiago eta posta bulego gehiago (biztanleko); hala ere, gasolindegietan eta banku bulegoetan atzerakada txikia izan du.
- Polizia-hornidura jaitsi egin da 2019tik, eta Euskadiko eta Bizkaiko batez bestekoaren azpitik dago.
- Gainera, emakumearen segurtasunak ere okerrera egin du, biktimizazio-tasa handiagoa izan baita 2017tik (1.000 emakumeko).

Udalak

Azkenik, eskualdeko udalen finantza-egoera Bizkaiko batez bestekoa baino zertxobait txarragoa da, bai zerga-bilketari dagokionez, bai zorpetzeari dagokionez.²⁴

Adierazle nagusien laburpen-taula


ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2015 - AUE)
Biztanleria (kop.)	2024	2.208.007	1.150.037	46.616	↑
10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi den biztanleria (%)	2023	19,1	19,1	27,4	↑
Zahartze-tasa (65 urtetik gorako biztanleriaren %)	2024	24,0	24,4	24,8	↑
Hazkunde begetatibo tasa (1.000 biztanleko %)	2022	-4,8	-5,5	-5,5	↓
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	2022	20.855	20.355	19.995	↑
DSBE onuradunak 1.000 biztanleko (%)	2022	22,5	25,5	18,4	↓

AUE: Azken Urte Erabilgarria

2.4 HIRI- ETA INGURUMEN-BERRONERATZEA

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da Busturialdea-Urdaibaik Bizkaiak eta Euskadik baino biztanleria-dentsitate txikiagoa duela, eta biztanleria bi hirigune nagusitan biltzen dela (Gernika-Lumon eta Bermeon).

Biztanleria-dentsitatea
2024; bizt./km²



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika.

Etxebizitza

Eskualdeko etxebizitzaren egoera, Bizkaiarekin eta Euskadirekin alderatuta, hau da²⁵:

- Bizkaiak eta Euskadin baino etxebizitza gehiago (0,58) biztanleko (0,49 bi kasuetan) 2023an, baina bigarren etxebizitzaren pisu handiagoa termino erlatiboetan. Eskualdeko etxebizitzaren % 73 lehen etxebizitzak dira, eta Bizkaiak eta Euskadin, berriz, % 86.
- Etxebizitza handiagoak, batez beste 100,7m²-ko azalera erabilgarria dutenak (Euskadin eta Bizkaiak, aldiz, 86-87m²).
- Etxebizitza-parke zaharragoa, batez beste 53,9 urteko antzinatasuna duena. Datu hori areagotu egiten da igogailurik ez duten etxebizitzak aztertuz gero: % 47,9 Busturialdea-Urdaibain, % 29,9 Bizkaiak eta % 28,5 Euskadin.
- Jabetza-erregimeneko etxebizitzek pisu handiagoa dute (% 86,2).
- Batez besteko alokairu-errenta baxuagoak (2016az geroztik % 25 handitu arren)²⁶.

Era berean, alde nabarmena dago etxebizitzaren tamainaren eta bizikidetzaren unitatearen bilakaeraren artean (gora egin du egoiliar bat edo bi dituzten familia-etxebizitzaren proportzioak, baina gela-kopuruaren arabera etxebizitza-ehunekoek egonkor jarraitu dute, 5 gelatik gorako etxebizitzak % 75 baino gehiago baitira).

Etxebiden egindako etxebizitza-eskaeri dagokienez, Busturialdea-Urdaibain mila biztanleko 25,8 eskaera erregistratu ziren 2022an. Bizkaiak 52,4 eskaera egin ziren eta Euskadin 50,7. Ildo horretan, azken bost urteetan 1.000 biztanleko amaitutako etxebizitza babestuen (BOE) datua ere esanguratsua da: Eskualdeak 0,8 erregistratu zituen 2022an, Bizkaiak 3,1 eta Euskadik 2,4.²⁷

Hiri-kalteberatasuna

Hiri-kalteberatasunari dagokionez, Eskualdeak *Birgaitze Integratuko Area (ARI)* gisa kalifikatutako 2 eremu ditu: Bermeoko eta Mundakako hirigune historikoak. Gainera, Bermeoko Kurtzio, Zarragoitxi eta Itsasbegi auzoak *Eremu Degradatutzat (AD)* hartzen dira, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren arabera. Bestalde, Eskualdeak 8 eremu kaltebera ditu (Bermeon, Elantxoben eta Gernika-Lumon).

Kalteberatasun handiko edo oso handiko eremuak Gernika-Bermeon 2023



Zer esan nahi dute kalteberatasuneko atalek?

Erroldako atalen kalteberatasun-maila 2 kategoriatan multzokatutako 9 indize sintetikoren arabera zehazten da. Indize bakoitzak puntuazio bat lortzen du, eta hori atal guztien batez bestekoarekin alderatzen da. Aztertutako erroldako atalen balioa batez bestekoa baino % 20 handiago bada, "oso balio handia" du; eta batez bestekoa baino % 10 eta % 20 artean okerragoa bada, "balio handia" du. Puntuazio handiagoak, indize bakoitzean kalteberatasun-maila handiagoa adierazten du.

Kalteberatasun-adierazleak

Birgaitzeko Behararren Indizeak	Birgaitze Zuzeneko Indizea (BZI)
Dimentsioen araberako Kalteberatasun indizeak	Dimentsioen araberako Kalteberatasun indizea (DKI)
	Kalteberatasun sozio-demografikoaren indizea
	Kalteberatasun sozio-ekonomikoaren indizea
	Bizigarritasunaren araberako Kalteberatasun indizea
	Irisgarritasunaren araberako Kalteberatasun indizea
	Egiturazko Egonkortasunaren araberako Kalteberatasun indizea
	Energia-eraginkortasunaren araberako Kalteberatasun indizea
	Dentsitatearen araberako Kalteberatasun indizea

Iturria: GeoEuskadi bisorea (Eusko Jaurlaritz).

Hiri-hondakinen kudeaketa

Hiri hondakinen kudeaketari dagokionez, eskualdeak zabortege baimendu bakarra du (Bermeoko Burgoabasoko hondakin geldoen zabortegea). Halaber, hiru garbigune daude (bat Gernika-Lumo eta Errigoiti artean, beste bat Bermeon eta beste bat Gautegiz-Arteagan). 2023an etxeko 17.429 tona hondakin bildu dira Eskualdean (edukiontzi bidezko bilketa eta bilketa masiboa batuta), aurreko urtean baino % 3 gutxiago. Bildutako tona guztien % 27,7a edukiontzietan egindako gaikako bilketaren bidez bildu da, Bizkaian baino ehuneko puntu bat gehiago²⁸.

Adierazle nagusien laburpen-taula

ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2015 - AUE)
Dentsitate demografikoa (biztanleak/km ²)	2024	305,4	520,2	167,2	↑
Etxebizitzak (kop.)	2023	1.081.647	560.845	27.046	↑
Etxebizitzak biztanleko (kop.)	2024	0,49	0,49	0,58	=
Etxebizitzen batez besteko antzinasuna (urte kopurua)	2023	48,7	50,3	53,9	↑
Kontratu berrien alokairuko hileko errenta (€)	2023	774,8	768,6	584,1	↑

2.5 LURRALDEA ETA JASANGARRITASUNA

Ondare historikoa, kulturala eta naturala


Busturialdea-Urdaibaik aberastasun natural, historiko eta kultural bereizgarria du, eta horrek bizikaltate eta erakargarritasun turistiko handiko leku bihurtzen du.

Ondare naturalari dagokionez, Busturialdea-Urdaibai erreferentziazko gunea da Euskadin, eta bere paisaia- eta ekologia-aniztasunarengatik nabarmentzen den UNESCOk Biosferaren Erreserba gisa izendatutako naturagune bakarra da. Gune natural berezia denez, haren babesbermatzen duten hainbat figura daude: Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Ramsar Konbentzioa eta Natura 2000 Sarea.

Busturialdea-Urdaibaik espazio txiki batean kontzentratutako paisaia, flora- eta fauna-giro aniztasun handia du. Biodibertsitate-indize handia du eta ezaugarri bereziak ditu, espezie migratzaileak eta itsasokoak hartzeko Kantauriko kostaldeko gune garrantzitsuenetakoa baita.

Busturialdea-Urdaibaiko ondare historiko-kulturalak, balio diferentziala ematen duten eta eskualdearen erakarpena handitzen duten hainbat motatako aktiboak biltzen ditu:

Busturialdea-Urdaibaiko ondare historiko eta kulturalaren aktibo nagusiak



Horrez gain, Biosferaren Erreserbarekin zerikusia duten jolas- eta aisialdi-jardueretarako beste gune batzuk nabarmendu behar dira, hala nola Urdaibai Bird Center (Gautegiz-Arteaga) eta Ekoetxea Urdaibai Biodibertsitate Zentroa (Busturia), bai eta umeen aisialdiarekin zerikusia duten beste batzuk ere, udalekuak antolatzen dituen BBK Urdaibai Zentroa (Busturia), besteak beste.

Aurreko guztiaren ondorioz, Eskualdeak kanpoko proiektzioa duten marka aintzatetsi eta baloratuak ditu, garrantzitsuenak hauek izanik: Urdaibai (natura), Gernika-Lumo (euskal tradizioa, bakea), Bermeo (atuna, kontserbak), Gaztelugatxe - Bermeo (turismoa), Mundaka (surfa).

Jasangarritasuna babesteko eta sustatzeko Urdaibaiko Biosfera Erreserba EUROPARC Fundazioaren Babestutako Naturaguneetako Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari atxiki zaio 2019an, turismo jasangarriaren aldeko tokiko estrategia eta ekintza-plana indarrean jartzeko helburuarekin.


Azkenik, Eskualdeak euskal lurraldean, kulturen eta tradizioetan errotutako nortasun-sentimendua du. Gainera, euskara Busturialdea-Urdaibai eta Bizkaiko beste eskualde batzuk bereizten dituen

balio kulturala da. 2021ean, biztanleen %53ak euskara bere lehen hizkuntzatzat hartzen du, Markina-Ondarroak soilik gainditzen duelarik Bizkaian. Gainera, Euskadiko batez bestekoaren (%18) eta Bizkaiko batez bestekoaren (%12) oso gaitetik dago.²⁹


Lurzoruaren erabilera esleituak

Plangintza orokorraren arabera Busturialdea-Urdaibaiko lurzoruei esleitutako erabilera Biosferaren Erreserbak eskualdearen azalera osoaren ia %80 hartzeak baldintzatzen du. Izan ere, lurzoruen %0,7 baino ez dago jarduera ekonomikoetarako aurreikusita, eta %1,7 bizitegi-lurzoru gisa, Bizkaiaren eta Euskadiren azpitik bi kasuetan.

“Jarduera ekonomikoetarako” lurzoria Guztizkoaren %



Lurzoru urbanizaezina Guztizkoaren %



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eustat.

Lurzoru urbanizaezina (eskualde osoaren %95a) EKZP - Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak arautzen du. Plan horrek Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurraldea zonakatzen du, udal-hirigintza-plangintzaren bidez antolatu eta aratu beharreko hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak identifikatzen ditu (HUPA eremua) eta lurzoru urbanizaezineko erabilerak arautzen ditu.

HUPA eremuaren mugaketa EKZPan zehazten da, eta ezin da aldatu EKZP aldatu barik. Beraz, jarduera ekonomikorako lurzoruak zabaltzeko aurreikuspenak oso mugatuta daude.

Busturialdea-Urdaibaiko Lurralde eta Hirigintza Plangintza



Iturria: GeoEuskadi bisorea (Eusko Jaurlaritza).

Airearen, uraren eta lurzoruen kalitatea

Adierazle nagusiek erakusten dute airearen kalitatea Bizkaian eta Euskadin baino hobea dela. Urteko batez besteko kutsadurak (PM2,5 partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa) 5,5 puntu izan zituen 2021ean (Bizkaian 9,1 eta Euskadin 8,8).³⁰

Baliabide hidrikoen egoerari dagokionez, ibaiko ur-masen eta eskualdeko kostaldeko ur-masen egoera ekologikoa “ona” da (salbuespenen batekin). Trantsizioko uren egoera, berriz, “txartzat” eta “moderatutzat” jotzen da pasagune batzuetan. Gainera, nabarmendu behar da Eskualdeak “erreserba hidrologiko” gisa kalifikatuta dauden lurpeko ur-masak dituela (Ibarrangelun eta Gautegiz-Arteagan), eta horien egungo egoera “txarra” dela³¹.

Lurzoruen kutsadurari dagokionez, Busturialdea-Urdaibaik kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituen eremuak ditu, batez ere industrialdeak (erabiltzen ari direnak edo garai batean industria-jarduerak hartu zituztenak) eta zabortegeak (erabiltzen ari direnak edo garai batean zabortege gisa erabili zirenak). Lurzoru kutsatuen arazo hori Gernika-Lumon eta Bermeon gertatzen da, baina ez udalerrri txikietan.³²

Uholde-arriskua

2022-2027 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (UAKP) aurreikusten duen bezala, Eskualdean uholde arrisku handiko 5 eremu (UAHE) daude identifikatuta, Euskadin identifikatutako 92 eremuetatik³³.

- Gernika UAHE (ES017-BIZ-OKA-01), Gernika-Lumo, Arratzu, Ajangiz, Forua eta Kortezubi udalerrriak barne hartzen dituena.
- Mundaka UAHE (ES017-BIZ-OKA-02).
- Altamira UAHE (ES017-BIZ-OKA-03), Busturia eta Murueta udalerrriak barne hartzen dituena.
- Muxika UAHE (ES017-BIZ-OKA-04).
- Ea UAHE (ES017-BIZ-LEA-01).

Gernika UAHE I. multzoan sailkatuta dago (arrisku oso handiko UAHE-ak, uholdeei aurre egiteko egiturazko neurriak lehentasunez hartu behar direnak), Bizkaiko beste eremu batzuekin batera, hala nola Bilbo-Erandio, Durango, Balmaseda eta Mungia. II. taldean (arrisku oso handiko UAHE-ak, uholdeetatik babesteko egiturazko neurriak azkar hartu behar direnak, I. taldeko UAHE-etan arriskua murriztea lortu ondoren), Altamirako eta Eako UAHE-ak daude.

Aipatutako UAKP horren helburua administrazio publiko guztien eta gizartearen jardura koordinatua lortzea da, uholde-arriskuak murrizteko eta uholdeen ondorio negatiboak murrizteko Neurriko Programa baten bidez, administrazio bakoitzak garatu beharreko jardura zehatzekin.

Klima-aldaketaren eragina

Klima-aldaketarekin lotutako itsas mailaren igoerak Busturialdea-Urdaibaiko ekosisteman, faunan eta floran ondorio zuzenak izango dituela aurreikusten da.

Climate Centralek Nature Communications aldizkarian argitaratutako azterlanaren emaitzen arabera, itsas maila metro bat hazten bada uholde-arriskua handia da eskualdean (hiriguneak ez diren eremuak ere kontuan hartuta).

Adierazle nagusien laburpen-taula

ADIERAZLEA	AUE	Euskadi	Bizkaia	Busturialdea-Urdaibai	Eskualdearen bilakaera (2015 - AUE)
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua (%)	2023	1,9	2,3	0,7	=
Bizitegi-lurzorua (%)	2023	2,6	3,6	1,7	↓
Airearen kutsadura (PM2,5 partikulen kontzentrazioa) (µgr/m ³)	2023	8,8	9,1	5,5	↓

2.6 OINARRIZKO AZPIEGITURAK

Garraio- eta mugikortasun-azpiegiturak

Ibilgailuen garraiotik hasita, Busturialdea-Urdaibaiko errepide-sareak eskualdeko eta tokiko errepideak ditu nagusi. Eskualdeak ez du lehentasunezko errepide edo autobiderik, eta horrek bere errepide-sarearen ahalmena ertaina edo ertain-txikia dela adierazten du.

Eskualdera eskualdeko errepideetatik edo Bermeoko oinarritzko sareko (BI-631) eta Muxikako (eta Gernikako zonaldea; BI-635) errepideetatik sar daiteke. Bi errepideek baldintza onetan dute lehen lotura-zatia, baina metropoli-eremutik urrundu ahala, haien ezaugarriek okerrera egiten dute, eta horrek eskualdeko eremu periferikoetarako irisgarritasuna murrizten du.³⁴


Trenbide-azpiegiturari dagokionez, Eskualdeak trenbide bakarreko sare bat du, Amorebieta-Etxanoren bitartez Bermeorekin eta Bilborekin lotzen dituen Euskal Trenbide Sarearen (Eusko Jaurilaritza) sarean integratuta. Hala ere, trenbidearen ibilbidea Urdaibaiko itsasadarraren ezkeraldetik baino ez da igarotzen.

Bestalde, autobus bidezko garraio publiko zerbitzua Bizkaibusek eskaintzen du nagusiki, eta horri Gernika-Lumoko (Bidebusa) eta Bermeoko (Bermibus) udal lineak gehitu behar zaizkio. Batez ere, udalerrri txikien eta Gernika-Lumoren eta Bermeoren artean ezartzen dira konexioak. Eskualdearen kanpoaldearekiko loturei dagokienez, udalerrri txikien kasuan Bilbora mugatzen dira, eta kasu batzuetan beste eskualde batzuetatik hurbil dauden herriak har ditzakete. Eskualdeko udalerrriak Galdakaoko Ospitalearekin edo Euskal Herriko Unibertsitatearekin lotzen dituzten lineak ere badaude.³⁵

Nabarmentzeko moduko beste elementu batzuen artean, esan behar da ez dagoela loturarik itsasadarraren ezkeraldearen eta eskualdearen artean autobus-zerbitzu bidez. Ildo beretik, ez dago loturarik Arabarekin eta Gipuzkoarekin, ezta Bilboko aireportuarekin ere.

Aztertutako informazioan oinarrituta, hurrengo mapan udalerrrien irisgarritasuna mailaka sailkatzen da, trenbidearen erabilgarritasuna, konexioa duten errepide motak eta autobus-linea operatiboak kontuan hartuta.

Garraio publiko eta errepide bidezko irisgarritasuna
2024; Udalerrrien sailkapena irizpide objektiboen arabera



Iturria: BFaren eta ETSren datuetan oinarrituta.

Portuko azpiegiturari dagokionez, Busturialdea-Urdaibaik Eusko Jaurlaritzaren esku dauden Bizkaiko lau portu ditu (Bermeo, Ea, Elantxobe eta Mundaka). Bermeoko portua nabarmendu behar da, arrantzan eta merkataritzan espezializatuta dagoelako eta zerbitzu ugari (ontziolak, ontzitegi-orgak, garabiak, hondartzeko arrapala...) eskaintzen dituelako.

Azkenik, Eskualdeak Gernika-Lumo, Forua, Gautegiz-Arteaga, Kortezubi, Murueta eta Arratzu udalerriak autorik gabe lotzeko aukera ematen duen bidegorri sarea du, baita beste bide independente batzuk ere. Gainera, beste bide batzuk eraikitzeko fasean edo planifikatuta daude, beste udalerrri batzuen arteko bizikleta-zirkulazioa osatzeko.

Energia-azpiegitura

Biztanleko kontsumo elektrikoa 3.652 kWh-koa zen 2022an, Bizkaian baino % 35 txikiagoa eta Euskadin baino % 40 txikiagoa, Eskualdeko industria jarduera txikiagoa delako.³⁶


Energia-ekoizpenari dagokionez, eskualdean instalatutako potentzia handiena energia fotovoltaikoari dagokio (321,22 kW 10.000 biztanleko), eta ondoren eguzki-energia termikoa (235,63 kW 10.000 biztanleko). Energia hidraulikoaren eta eolikoaren sorrera, aldiz, oso txikia da.

Bestalde, familia-etxebizitzetako eraikinen % 64,4ak hodi bidezko gas-instalazioa du, eta ehuneko hori Bizkaikoa eta Euskadikoa baino askoz txikiagoa da (% 80,9a eta % 83,1a, hurrenez hurren). Alde hori Eskualdeko higiezinaren parkea zaharrituta dagoelako eta etxebizitza-tipologiarengatik ulertzen da.³⁷

Telekomunikazio-azpiegitura eta banda zabalerako sarbidea

100 Mbps-ko banda zabalaren (100 megabit segundoko) estaldura erabatekoa da (%100) Busturialdea-Urdaibaiko udalerrietan, Bizkaiko eta Euskadiko gainerako udalerrietan bezala. Aldiz, 1 Gbp-ren mailan (Gigabit bat segundoko edo, beste era batera esanda, 1.000 megabit segundoko), estaldura handia da kostaldeko udalerrietan, baina nabarmen murrizten da barrualdeko udalerrietan. Gauza bera gertatzen da FTTHren estaldurarekin (zuntza etxeraino). Bi kasuetan, % 60tik beherako balioak erregistratu dira Ereñon.

Banda zabalaren estaldura Busturialdea-Urdaibain: Gbps eta FTTH
2023; estalitako etxebizitzentzen %, udalerririka



Iturria: Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

5G estaldurak ere alde nabarmenak erakusten ditu Globala edo 3,5GHz kontuan hartzearen arabera. Lehenengo kasuan, estaldura zabala da eskualdean (% 90etik gorakoa), Elantxobe (% 0,8), Ibarrangelu (% 9,7), Muxika (% 46,2) eta Mendata (% 61,8) udalerrietan izan ezik.

Aldiz, 5G eta 3,5 GHz arteko estalduran (abiadura handiagoa) alde handiak daude eskualdeko udalerrien artean. % 80tik gorako estaldura Bermeon eta Gernika-Lumon bakarrik lortzen da. Ajangizek eta Foruak % 60ko eta % 44ko estaldura lortu dute, hurrenez hurren. Estaldura duten gainerako udalerrietan, oso mugatua da, % 0-%7 artekoa, eta 8 udalerririk ez dute inolako estaldurarik.

Ura eta saneamendua

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, Busturialdea-Urdaibaiko udalerrietako lehen mailako sarearen ur-hornidura Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren eskumena da. Busturialdea-Urdaibaiko hornidura-sistemak arazo hauek ditu:

- Agorraldietan baliabide gutxi dago, eta horrek ibilguen emari ekologikoak sakrifikatzea dakar, hornidura bermatzeko.
- Gernika-Lumoko akuiferoaren sektoreak kutsatzeko arriskua (eskariaren zati handi baten euskarria gaur egun), hornidura-sistemaren kalteberatasuna areagotzen duena.

Arazo horiek 2018an onartutako Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Hornidurako Lurralde Ekintza Planean (HEP) ere islatzen dira.

Hainbat jarduketa-ildo aurreikusi dira, HEPak ezarritako ildoetara jarraituz: instalazioak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estandarretara egokitzea, azpiegiturak optimizatzea eta hobetzea, eta baliabideak handitzera bideratutako sistemak eta jarduketak zabaltzea.

Bestalde, uren saneamenduak ere arazoak ditu Eskualdean. Gaur egun, hondakin-urak arazteko (HUA) 7 estazio daude. Bermeon eta Gernika-Lumon daudenek ahalmen ertain handia dute; Eakoak ahalmen ertaina du eta Ibarrangelukoak (2), Elantxobekoa eta Ereñokoa ahalmen txikikoak dira.³⁸ Alde horretatik, eskualdeak gabeziak ditu saneamendu-sarean, batez ere Ajangizen eta eskuinaldeko beste udalerririk batzuetan.

3. BUSTURIALDEA – URDAIBAIREN ETORKIZUKEKO ERRONKAK

Aurkeztutako diagnostikoa egitean aztertutako informazioan eta prozesuan zehar eragileekin egindako elkarrizketetan oinarrituta, zortzi erronka orokor identifikatu dira Busturialdea-Urdaibai eskualderako.

Hainbat jarduketa-eremu barne hartzen dituzten erronka orokorrak dira.

Busturialdea-Urdaibai eskualdeko erronka estrategikoak

8 ERRONKA ESTRATEGIKO

BIZI - KALITATEA

1. Udalerrietan beharrezko baldintzak sortzea, Eskualdean bizi diren **pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea** hobetzeko.
2. **Kolektibo kalteberetik** arazoei heltzea eta Eskualdeko errealitatera eta beharretara egokitutako **hiri-berroneratzea**
3. Eskualdean **kalitatezko enplegua** sustatzea eta **prestakuntza-eskaintza** egokitzea

ONDAREA

4. **Ingurumen-, historia- eta kultura-ondare** aberatsa babestea, baita Eskualdean dagoen errotzea eta nortasun sentimendua ere.
5. Eskualdeko erakargarritasunei balioa ematea, **turismoa ikuspegi jasangarritik** aukera-sektore gisa dinamizatzeko.

ENPRESEN LEHIAKORTASUNA

6. **Jarduera ekonomikoa** bultzatzea, Eskualdean dauden gaitasunak aprobetxatuz eta haren mugak gaindituz.
7. Eskualdeko **azpiegiturak** indartzea, enpresentzako (egungoak eta potentzialak) **ingurune lehiakorra** sortzeko.
8. Busturialdea-Urdaibairen **garapen integrala** eta **koordinatua** bultzatzea, **eskualde-ikuspegitik**.

1.ERRONKA. Udalerrietan beharrezko baldintzak sortzea, Eskualdean bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

Erronkari heltzeko, lehenetsuneko lan-esparruak honako hauek dira:

- Mugikortasuna hobetzea: errepideak modernizatuz, garraio publikoa (trenbidea, autobusa) eta intermodalitatea indartuz, eta bidegorri-sarea zabalduz.
- Etxebizitza eskuratzea.
- Ur-hornidurako eta -saneamenduko sarea optimizatzea.

Gainera, kontuan hartu beharreko beste esparru batzuk identifikatu dira:

- Zerbitzu sanitarioak eta soziosanitarioak indartzea.
- Udal-instalazioak hobetzea eta mantentzea.
- Oinarrizko zerbitzuak eta tokiko merkataritza-dinamismoa.
- Hiri-hondakin solidoen kudeaketa eraginkorra.
- Uholde-arriskuaren kudeaketa.
- Konektagarritasun digitala hobetzea, batez ere landa-eremuetan; horrela, herritar guztiek beren oraingo eta etorkizuneko ongizaterako azpiegitura eta zerbitzu egokiak izango dituztela bermatuko da.

2.ERRONKA. Kolektibo kalteberetik arazoei heltzea eta Eskualdeko errealitatera eta beharretara egokitutako hiri-berroneratzea. Identifikatutako bigarren erronka kolektibo kalteberei eragiten dieten arazoei modu integralean heltzea da. Kolektibo horiek eskualdeko udalerrri eta auzo espezifikoetan biltzen dira. Gizarte-kohesioa (gizarte-zerbitzuak indartuz),

enplegua sortzea eta hiri-berroneratzea aintzat hartzen dituzten jarduera zehatzak eta ikuspegi integraleko esku-hartzeak eskatzen ditu.

3.ERRONKA. Eskualdean kalitatezko enplegua sustatzea eta prestakuntza-eskaintza egokitzea. 3. erronkak eskualdean kalitatezko enplegua sustatzea du helburu, lurraldeko premietara eta enpresa ehunera egokitutako lan-aukerak sortuz.

4.ERRONKA. Ingurumen-, historia- eta kultura-ondare aberatsa babestea, bai eta Eskualdean dagoen errotzea eta nortasun sentimendua ere. Laugarren erronka estrategikoa Busturialdea-Urdaibaiko ingurumen-, historia- eta kultura-ondare aberatsa zaintzea eta balioestea da, Biosferaren Erreserba gisa aitortutako eskualde berezia baita. Bereizgarri horrek biodibertsitatea babesteko eta balio ekologiko handiko espazioak (padurak, hondartzak, ibaiak eta basoak) birsortzeko beharra indartzen du, kudeaketa jasangarriaren bidez eta ingurunea errespetatuz. Era berean, lehen sektorea funtsezkoa da paisaiaren eta landa-kulturaren kontserbazio aktiborako. Erronkak tokiko kultura, ondare historikoa eta nortasun sentimendua ere barne hartzen ditu, arreta berezia jarritz euskara bultzatzeari, kohesio sozialerako eta eskualdearen nortasunerako funtsezko elementu gisa.

5.ERRONKA. Eskualdeko erakargarritasunei balioa ematea, turismoa ikuspegi jasangarritik aukera-sektore gisa dinamizatzeko. Bosgarren erronka estrategikoa turismoa Busturialdea-Urdaibairentzako aukera-sektore gisa dinamizatzea planteatzen du, Biosferaren Erreserba gisa duen berezitasuna eta historia-, kultura- eta ingurumen-ondare baliotsua aprobetxatuz. Turismo-eredu iraunkorra, baliabide naturalen eta kulturalen kontserbazioa bermatuko duena, eta, aldi berean, jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortuko dituen.

6.ERRONKA. Jarduera ekonomikoa bultzatzea, Eskualdean dauden gaitasunak aprobetxatuz eta haren mugak gaindituz. Erronka Busturialdea-Urdaibaiko ehun ekonomikoa suspertzea, dibertsifikatzea eta indartzea da, eskualdean dauden baliabideetan, sektoreetan eta ezagutzan oinarrituta. Egiturazko ahuleziei ere helduz, hala nola lurzoru industrialaren eskasia, sektore produktiboaren pisu galtzea edo jarduera tradizioaletan belaunaldi-erreleborik ez egotea.

Garapen ekonomikorako estrategia integral bat bilatzen da, honako ardatz hauetan oinarrituta:

- Industria-sektorea suspertzea, azpiegituren modernizazioa, berrikuntza eta enpresa-lankidetzaren sustatzea.
- Lurraldeko trakzio-sektoreei laguntzea, hala nola:
 - Automozioa (industria-enpresa garrantzitsuen presentziarekin).
 - Bermeon errotuta dagoen atun-kontserba sektorea.
 - Zuraren sektorea, baso-aprobetxamenduarekin eta industria-eraldaketarekin lotuta.
- Ekintzailatza aurreratua sustatzea, bereziki jarduera berritzaileetan, jasangarrietan edo oinarri teknologikokoetan.
- Lehen sektore tradizionala bultzatzea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza), bideragarritasun ekonomikoa eta tokiko balio-kateekin duen lotura hobetuz.
- Baso-kudeaketa iraunkorra garatzea, aprobetxamendu ekonomikoa, ingurumen-babesa eta enplegua sortzea uztartuko dituen.
- Hazten ari diren edo potentziala duten sektoreei laguntzea.
- I+G eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea, inguruko eragileekin lotuta, hala nola zentro teknologikoekin, unibertsitateekin edo erakundeekin.
- Enpresa berriak erakartzea, horiek ezartzeko baldintza egokiak erraztuz (azpiegiturak, talentua, berrikuntza-ekosistemak).

7.ERRONKA. Eskualdeko azpiegiturak indartzea, enpresentzako (egungoak eta potentzialak) ingurune lehiakorra sortzeko. Zazpigarren erronka estrategikoaren helburua da Busturialdea-Urdaibai lurralde erakargarri eta lehiakor gisa sendotzea, dauden enpresei eta enpresa-ekimen berriak erakartzeari mesede egingo diena. Erronkari aurre egiteko, beharrezkoa da kalitatezko industria-lurzorua eskuragarri jartzea eta egokitzea, hainbat sektoreren beharretara egokituta, eta komunikazioak hobetzea, salgaien garraioa eta pertsonen mugikortasuna errazteko, talentua erakartzen eta atxikitzen laguntzeko.

8.ERRONKA. Busturialdea-Urdaibairen garapen integrala eta koordinatua bultzatzea, eskualde-ikuspegitik. Zortzigarren erronka estrategikoak Busturialdea-Urdaibairen garapen integral eta orekatua sustatzearen aldeko apustua egiten du, udalerrien, tokiko eragileen eta erakundeen arteko koordinazioan oinarrituta. Eskualdeko gobernantza indartu nahi da, interes komunei erantzungo dieten, baliabideak optimizatuko dituzten eta sinergiak sortuko dituzten proiektu estrategikoen plangintzan eta gauzatzean modu koherentean aurrera egiteko. Ikuspegi partekatu horri esker, eskualdearen egungo eta etorkizuneko erronkei modu eraginkorragoan aurre egin ahal izango zaie, lurralde-kohesioa eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuna bermatuz.

4. ESQUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN TRAKZIO PROIEKTUAK


Busturialdea-Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoa proiektu kopuru mugatu batean arreta jarri eta identifikatzeko premisarekin planteatzen da hasieratik. Proiektu horiek Trakzio Proiektuak dira, 2030erako eskualdea eraldatu eta trakzionatzeko eta adostutako eskualdeko erronka estrategikoei aurre egiteko duten gaitasunagatik.

Trakzio proiektuek ezaugarri hauek dituzte:

- Inpaktu-maila, trakzio-gaitasun eta eskualde-erlaldaketa handiko proiektuak dira, eta proiektu bakoitzaren arabera forma desberdinak har ditzakete. Alde batetik, eragina izan dezakete gizartean eta pertsonen bizi-kalitatean; beste alde batetik, erlaldaketa ekonomikorako potentziala izan dezakete.
- Irismen handiko proiektuak dira, identifikatutako erronka bat baino gehiagori erantzuteko gaitasuna dutenak.
- Heldutasun aurreratuko proiektuak dira, 2030erako gauzatu edo abiarazteko moduko epea dutenak, nahiz eta haien eragina ondorengo urteetan nabarmendu.
- Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko prozesuan adostasun handiko proiektu gisa identifikatu dira, eta aurrera eramateko interesa edo inplikazioa duten eragileak dituzte.

Deskribapen metodologikoaren atalean zehaztu bezala, EPEn sartutako proiektuen behin betiko identifikazioak identifikazio- eta lehentasun-prozesu ordenatua jarraitu du.

Trakzio proiektuak identifikatzeko jarraitutako prozesuaren laburpena



Diagnostiko integrala Busturialdea-Urdaibaiko erronka estrategikoei aurre egiteko ideiak identifikatzeko abiapuntua izan da. Horrez gain, aurreko diagnostiko eta planen azterketa, funtsezko eragileei egindako elkarrizketen ondorioak, Eskualdeko Partaidetza Foroetan jasotako ekarpenak eta herritarren parte-hartze prozesua ere kontuan hartu dira. Horri guztiari esker, askotariko informazio eta ikuspegi bildu dira, eta irismen zein definizio maila desberdineko ideiak identifikatu ahal izan dira.

Ideien lehen azterketari eta sailkapenari esker, trakzio-potentziala duten 20 proiektu identifikatu dira, ezaugarri hauek kontuan hartuta:

- Inpaktu-maila eta bizi-kalitatean, inpaktu sozialean eta eraldaketa ekonomikoan eragin positiboa izateko gaitasuna.
- Egingarritasuna, proiektu bakoitzaren heldutasun-maila, eta horiek gidatzen edo bultzatzen parte hartzen duten edo interesa duten eragileen presentzia.

20 proiektuei hasierako lehen-tasun-prozesu bat aplikatu zaie, eta zerrenda 17 proiektutara murriztu da, trakzio-potentzialaren arabera. Aukeraketa hau oinarritu da honako hauetan:


- Mugarri parte-hartzaileetako balidazio eta ekarpenak: talde eragilearena, eskualdeko partaidetza-foroena eta herritarren parte-hartze prozesuarena.
- Proiektu bakoitzeko eragile edo sail liderren parte-hartzearekin egindako azterketa tekniko eta ekonomikoa. Azterketa honen bidez, proiektuen irismena fokatu eta definitu nahi izan dira, egungo egoera aztertu, bideragarritasun tekniko-ekonomikoa ebaluatu, eta abiarazteko egon litezkeen zailtasun edo arriskuak identifikatu.

Oro har, prozesua ikuspegi parte-hartzailean eta teknikoan oinarritu da, eta, horri esker, hautatutako proiektuek eragin eraldatzaile handia dute, egingarriak dira eta bultzada emateko gizarte- eta erakunde-babesa dute.

Horrela, azken lehen-tasunean hurrengo proiektuak identifikatu dira:

- 12 trakzio-proiektu nagusi, diagnostiko-fasean identifikatutako erronkei aurre egiteko. EPE osatzen duten proiektu horiek EPEren baliabide ekonomikoa propioak izango dituzte, jarraipen espezifikoa jasoko dute eta 2030erako gauzatzea aurreikusten da.
- Proiektu estrategiko bideratzaile bat, eskualdeko ikuspegitik ekonomiaren sustapena lantzeko. Proiektu honek udalerrien arteko koordinazio handitzea eta sinergiak sortzea du helburu. Ez du EPEren aurrekontu ekonomikorik izango, eta udal-lidergoaren bidez garatu beharko da.
- Beste proiektu estrategiko batzuk, eskualdearen garapen iraunkorra eta lehiakortasuna indartzeko. Proiektu horiek ohiko kudeaketa eta aurrekontu baliabideetatik abiatuta jorratuko dira eta ez dute denbora-mugarik izango.

Busturialdea - Urdaibai Eskualdeko trakzio proiektuak



12 trakzio proiektuak lau gai arlotan biltzen dira, eta diagnostiko fasean identifikatutako erronkei erantzuten diete.

- Mugikortasuna eta konektibitatea.
- Etxebizitza eta gizarte-kohesioa.
- Sustapen ekonomikoa eta ehun produktiboari lotutako kalitatezko prestakuntza.
- Aktibo natural, kultural, historiko eta identitarioak.

Busturialdea – Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoaren trakzio-proiektuek eskualdeko erronka estrategikoetan izango duten eragina

	1. ERRONKA Bizi kalitatea	2. ERRONKA Kalteberak, berroneratzea	3. ERRONKA Enplegua eta prestakuntza	4. ERRONKA Ondarea, nortasuna	5. ERRONKA Turismo jasangarria	6. ERRONKA Sustapen ekonomikoa	7. ERRONKA Enpresentzako azpiegiturak	8. ERRONKA Eskualde ikuspegia
1. Autzagane-Muxika errepidea	●					●	●	
2. Muxika-Bermeo bidegorria	●				●			
3. Garraio publikoa hobetzea	●				●			
4. Kolektibo kalteberei laguntzea eta tokiko enplegua sustatzea	●	●	●					
5. Etxebizitza publikoaren sustapena	●	●						
6. Lanbide Heziketa indartzea			●			●		
7. Eskualdeko industria – poligono berria Muxikan			●			●	●	
8. INAMaren lurzatia berregokitzea			●			●	●	
9. Eduki teknologiko handiko industria inbertsioa			●			●		
10. Bermeoko portuaren eraldaketa eta ekonomia urdina bultzatzea	●		●	●	●	●	●	
11. Ondare historikoa, kulturala, naturala balioan jartzea				●	●			
12. Gernikako Azoka eta lehen sektorea	●		●	●		●		
13. Eskualdeko agentzia			●			●	●	●

Jarraian, Busturialdea-Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoa osatzen duten 12 trakzio-proiektuak deskribatzen dira, gai arlotan sailkatuta.

Proiektuen deskribapenean honako hauek jasotzen dira: espero diren helburuak eta inpaktuak, baita deskribapen labur bat ere. Gainera, hainbat proiektutan aurrekontu arruntarekin garatu beharreko jarduera osagarriak nabarmentzen dira (EPEren irismenetik kanpo geratzen direnak). Jarduera horiek trakzio-proiektua osatzen dute.

4.1 1. Gai-arloa. Mugikortasuna eta konektibitatea.

Busturialdea-Urdaibaik hainbat erronka ditu mugikortasunari eta konektibitateari dagokienez, bai eskualdearen barruan, baita Bizkaiko beste eremu batzuekin duen loturan ere.

Eskualde barruko mugikortasunari dagokionez, azpimarratzekoa da:

- Bide-azpiegitura mugatua, joan-etorrien zirkulazioa eta abiadura zailtzen duten tokiko errepideek osatua.
- Herritarren beharrak guztiz betetzen ez dituen garraio publikoa, bereziki landa eremuetan (maiztasunagatik eta irismenagatik).
- Garapenean dauden mugikortasun iraunkorrerako azpiegiturak (bizikletaz eta oinez).

Kanpoaldearekiko konektibitateari dagokionez, azpimarratzekoa da:

- Eskualdea eta Bilbo lotzen dituen trenbide-sarea, bidaiaren iraupenagatik beste garraioekiko lehiakorra ez dena.
- Hobekuntza-eremuak dituen autobus-sarea: trenarekiko konexio intermodalak eta irismen geografikoa.
- Errepide bidezko sarbideak, muga batzuekin: bihurtune handiak, trafiko handia puntako orduetan eta trafikoaren arintasuna mugatzen duen bikoizketarik eza ibilbide gehienetan.

Gai-arlo honetan 3 trakzio proiektu sartzen dira.

1. Trakzio proiektua. Autzagane – Muxika errepidea

Helburuak eta eragin eraldatzailea.

- Zugaztietako lotunearen eta Ariatza auzoaren arteko istripu-tasa murriztea.
- Muxikako auzoen arteko oinezkoentzako komunikazio segurua bermatzea.
- Eskualdearen eta kanpoaldearen arteko lotura hobetzea.

Trakzio proiektuaren deskribapena.

BI-635 errepidearen trazadura hobetzea Muxikan, dauden bihurguneetan eta hauen ikuspenean eraginez.

Jarduketa osoak 2,12 km-ko luzera izango du, eta bi erreiko galtzada bakarra duen errepide mota mantenduko da, noranzko bakoitzeko bat.

Jarduketarekin batera, oinezkoentzako ibilbide bat sortuko da Oka auzotik Ariatzara. Eskuinaldetik 2m-ko zabalera izango duen espaloi bat egingo da, auzoak segurtasunez komunikatzeko, baita autobus-geltokietarako sarbidea ere.

2. Trakzio proiektua. Muxika-Bermeo bidegorria

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Motordun trafikoa murriztea.
- Mugikortasun jasangarrirako alternatiba, ingurumenean eragin positiboa izango duena.
- Udalerrien arteko lotura segurua (eskualde barruko mugikortasuna).
- Turismo aktibo eta jasangarrirako eskaintza erakargarriagoa.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Bidegorrien sarea handitzea, Bermeotik Muxikarako ibilbidea osatuz, Lurralde Plan Sektorialean (LPS) zehaztutakoaren arabera.

Egingo diren tarteak:

- Gernika-Lumo - Murueta tarteak.
- Muxika - Gernika-Lumo tarteak.

3. Trakzio proiektua. Garraio publikoa hobetzea

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Bizi-kalitatea hobetzea eta biztanleak erakartzeko eta atxikitze gaitasun handiagoa izatea.
- Segurtasuna hobetzea (trenbidearen erabiltzaileak eta errepideko bide-segurtasuna).
- Motordun trafikoa murriztea; ingurumenean eragin positiboa izango duena.
- Turismo jasangarrirako eskaintza erakargarriagoa.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Bi jarduketa aurreikusten dira:

1. Jarduketa. Eskualdeko eskuinaldean eskatu ahalako garraio-zerbitzu proiektu pilotua. Zerbitzua tamaina txikiko autobusekin eskaintzea aurreikusten da. Erabiltzaileek aplikazio edo telefono-linea baten bidez bidaiaren ordutegia (iritsiera-ordua) eskatu ahal izango dute. Eskaera guztien arabera, sistemak ibilbide eraginkorra kalkulatu du.

2. Jarduketa. Autobus-geltoki berria Mundakan. Autobus-geltoki berria Mundakan. Gaur egun udalerraren erdigunean dagoen autobus-geltokia errepide nagusira eramatea aurreikusten da, eta tren-geltokiarekin pasabide baten bidez lotuko da. Horrela, Mundaka (Goiko Kalea) hirigunearen

arteko autobus-zirkulazioa kentzea da helburua, batez ere udan sortzen diren zailtasunak murrizteko.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jarduera osagarriak.

Jarduketa osagarriek trenaren E4 linea bultzatu nahi dute, bi jarduketaren bidez:

1. Jarduketa. Bideak bikoiztea, zerbitzuaren maiztasuna handitzeko. Bi jarduera dira, bakoitza bi kilometroko luzerakoa, eta hirugarren bat, aurrekoekin batera, bidaiaren denbora murrizteko (3 faseetan aurreikusita). Lau tren lortuko lirateke orduan (15 minutuko maiztasuna) eta noranzko bakoitzean. 3 faseetan garatuko da.

- 1. fasea. Bideak bikoiztea Autzagane eta Zugastietako tunelen artean. Amorebieta-Etxano eta Gernika-Lumo arteko maiztasuna hobetzea ahalbidetuko luke.
- 2. fasea. Murueta inguruan trenbidea bikoiztea. Gernika-Lumotik Bermeorako maiztasuna hobetzea ahalbidetuko luke.
- 3. fasea. Gernikako Institutoan trenbideak bikoiztea, egungo geralekua aldatuz, bidaiaren denbora murrizteko.

2. Jarduketa. Geltokiak hobetzeko eta modernizatzeko proiektuak. Bermeoko eta Mundakako tren-geltokia berritzea.

- Bermeoko geltokia berritzea. Estaziora sartzeko kurba hobetzea, nasa berriz konfiguratzea eta estazio berritua integratzea.
- Mundakako geltokia berritzea. Atari berria, hegoaldeko nasa handitzea eta nasen arteko trenbide-pasagunea kentzea, Mundakako geltokian trenak gurutzatu ahal izateko.

4.2 2. Gai-arloa. Etxebizitza eta gizarte kohesioa

Busturialdea-Urdaibaiko etxebizitzaren eta auzo kalteberen problematikak hainbat erronka ditu, bai bertako biztanlerian (gazteak bereziki) baita eskualdeko garapen iraunkorrari eragiten diotenak ere.

Etxebizitza eskuratzeko arazoak:

- Prezioei eta etxebizitza-eskasiari dagokionez (erosketa eta alokairua), batez ere gune turistikoetan.
- Etxebizitza babestuen eskaintza mugatua.
- Etxebizitza-parkearen zahartzea.
- Bigarren etxebizitzaren presentzia handia, termino erlatiboetan.
- Iraupen laburreko etxebizitza turistikoak ugaritzearen ondoriozko arazoak.

Gainera, auzo kalteberak eta lurralde-desberdintasunak nabarmentzen dira:

- Kalteberatasun-arrisku handiagoko eremuak daude. Eskualdeak 8 eremu kaltebera ditu (Bermeon, Elantxoben eta Gernika-Lumon)³⁹.

Gai-arlo honetan 2 trakzio proiektu sartzen dira.

4. Trakzio proiektua. Kolektibo kalteberei laguntzea eta tokiko enplegua sustatzea.

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Gizarte-kohesioa hobetzea eta desberdintasunak murriztea.
- Inpaktu positiboa pertsonen enplegagarritasunean.
- Hiri berroneratzea.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Proiektuak eskualdeko kalteberatasun handiko auzoetan esku hartzea bilatzen du, hainbat dimentsiotan jardunez: Kohesio soziala/Hiri eta ingurumen berroneratzea/Sustapen ekonomikoa eta enplegua. Bi jarduera ditu:

1. Jarduketa. "Rehaviva" Proiektua. Eskualdeko eraikuntza publiko bat (Hezkuntza/Osasun zentroa edo Eraikuntza/Lokal publikoa) gazteentzako zuzkidura-bizitokia birgaitzea eta bihurtzea, kalteberatasunean dauden gazteek egina. Gainera, eskualdeko 12-15 gazte gaitzea, birgaitze eta eraikuntza jasangarriko tekniketari, haien profesionalizazioa, laneratzea eta autonomia sustatuz.

2. Jarduketa. Tokiko enplegu plana, identifikatutako auzoetan 45 urtetik gorako langabeak lan-merkatuan sartzen laguntzeko

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jarduera osagarriak

Eskualdeko kalteberatasun handiko eta oso handiko auzoak leheneratzeko jarduketak (hirigintza-arkitektura- eta ingurumen-jarduketak).

5. Trakzio proiektua. Etxebizitza publikoaren sustapena

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzea eta etxebizitzaren kostuari eustea.
- Lurralde-kohesioa handitzea. Hainbat udalerritan etxebizitza eskuratzeko aukera orekatuagoa izateak eskualde integratuago bat lortzea ahalbidetzen du, biztanle-kontzentrazioak saihestuz gune nagusietan.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Proiektua eskualdeko hainbat udalerritan, alokairu-erregimenean, dagoeneko proiektatuta dagoen etxebizitza publikoaren eraikuntza azkartzean oinarritzen da. Zehazki, Errigoitiko udalerrian 15 etxebizitzaren sustapena bizkortzea izango du helburu proiektuak.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jarduera osagarriak

EPEn sartutakoaz gain, beste jarduera batzuk ere garatuko dira, hainbat sail eta erakunderen ohiko kudeaketatik abiatuta.

- Eskualdeko etxebizitza publikoen beste sustapen batzuk, kudeaketa arruntetik bultzatzen jarraituko direnak: 24 etxebizitza Mundakan, 14 etxebizitza Ean.
- Eskualdeko gazteen artean etxebizitzaren arazoak aztertzeke proposamen-txosten diagnostikoa egitea.

4.3 3. Gai-arloa. Sustapen ekonomikoa eta ehun produktiboari lotutako kalitatezko prestakuntza

Busturialdea-Urdaibain ekonomiaren sustapenerako eta kalitatezko prestakuntzarako erronkak oso lotuta daude eskualdeko egitura produktiboarekin eta enplegu-aukerekin. Eskualdeak honako ezaugarri hauek ditu:

- Egitura ekonomiko ahula. Desindustrializazio progresiboarekin, biztanleko BPG-a Euskadikoaren batez bestekoa baino txikiagoa, dibertsifikazio sektorial eskasa eta egiturazko arriskuak sektore nagusietan (automobilgintza eta atun-sektorea).
- Nolabaiteko trakzio-ahalmena duten enpresa eta sektore batzuk nabarmentzen diren enpresa-sarea. Baina lehiakortasun-arazo batzuk dituztenak: talentua eta profil espezifikoa erakartzea, beharretara egokitutako lanbide-heziketa eta baldintza logistikoak, besteak beste.
- Gero eta garrantzi handiagoa duten eragile dinamizatzaileak daude, baina eskualdearen garapen integrala eta koordinatua falta da.
- Industria-lurzoruaren erabilgarritasun mugatua.

Gai-arlo honetan 5 trakzio proiektu sartzen dira.

6. Trakzio proiektua. Lanbide Heziketa indartzea

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Inpaktu positiboa pertsonen enplegarritasunean.
- Eskualdeko enpresen lehiakortasuna indartzea.
- Beste eskualde batzuetako ikasleak erakartzeko aukera, dinamismo handiagoa sortuz.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Barrutialde eta Nautika Eskolaren inguruko Lanbide Heziketaren eskaintza eta eskualdeko enprekin duten lankidetzaren indartzean oinarritzen da proiektua. Horretarako, hurrengo egingo da:

- Ekipamendu eguneratuetan inbertitzea, ikasleak teknologia berrietan trebatzeko eta haien enplegarritasuna hobetzeko.
- Espazioak eguneratzea eta egokitzea. Ekipamendu berrien beharretara bideratutako egokitzapen orokorrak.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jardueren osagarriak

Eskualdeko Lanbide Heziketako zentroen eskaintza zabaltzeko eskaera eta bideragarritasuna aztertzea, gaur egungo espezializazioen barruan edo horiekin lotutako beste familia batzuetara bideratuta.

7. Trakzio proiektua. Eskualdeko industria-poligono berria Muxikan

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Eskualdean geratu nahi duten eskualdeko enpresak kokatzeko aukera berria.
- Enpresa berriak erakartzeko gaitasuna.
- Jarduera ekonomiko handiagoa, BPG industrialaren hazkundera.
- Eskualdeko lanpostu industrialen eskaintza handiagoa.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Busturialdea-Urdaibai eskualdeko eta, oro har, Bizkaiko jardueren ekonomikoetarako lurzoru publiko industrial berria sortzea. Muxika-Miangoko industria-poligono berria eraikitzean datza proiektua, eskualde izaerakoa, 50 hektarea ingurukoa.

Zehazki, industrialdera sartzeko bide berriaren eraikuntzan oinarrituko da EPEn bildutako jarduerak.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jardueren osagarriak

Poligonoaren eraikuntza osatzeko, barne-urbanizazioa aurrekontu arruntetatik garatuko da.

8. Trakzio proiektua. INAMAREN lurzatiaren berregokitzea

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Eskualdean geratu nahi duten eskualdeko enpresak kokatzeko aukera berria.
- Enpresa berriak erakartzeko gaitasuna.
- Jarduera ekonomiko handiagoa, BPG industrialaren hazkundera.
- Eskualdeko lanpostu industrialen eskaintza handiagoa.
- Gaur egun erabiltzen ez den lurzati bat leheneratzea.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Eskualdean dagoen lurzoru industrialaren beharri erantzuteko, proiektua Inama enpresak Muxikan zituen eta gaur egun SPRILUR enpresaren jabetzakoa den instalazioak berreskuratzean eta berroneratzean datza.

Lurzatiak 60.000 m² inguruko azalera du.

EPEk dauden instalazioak lehenagotzeko jarduerak bultzatu eta azkartuko ditu.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jarduera osagarriak

Lurzatiaren egokitzapena osatzeko, beste berreskuratze- eta leheneratze-jarduera batzuk egin beharko dira, proiektua osatu arte, aurrekontu arruntetatik egingo direnak.

9. Trakzio proiektua. Eduki teknologiko handiko industria inbertsioa

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Eskualdean balio erantsi handiko jarduera berriak garatzea (dibertsifikazioa).
- Eskualdean lanpostu industrialak sortzea.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Busturialdea-Urdaibain finkatzen diren eta eduki teknologiko eta balio erantsi handiko enpresa-jarduera berriak sortzera bideratuta dauden industria-enpresen inbertsio-proiektu berriei laguntzea.

Zehazki, energia-metatzeko teknologia aurreratuan oinarritzen den proiektu bat bultzatuko da.

10. Trakzio proiektua. Bermeoko portuaren eraldaketa eta ekonomia urdina bultzatzea

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Egungo jardueretarako eta jarduera berrietarako baldintza hobekak, garapen ekonomikoa, enplegua eta ekonomia urdina sustatzen dutenak.
- Bermeoko portuaren posizionamendua, kanpo-proiektioarekin.
- Bermeoko portuaren inguruko eta Urdaibai eskualdearen erakargarritasun handiagoa.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Bermeoko portuaren berrantolaketa integralaren bidez ekonomia suspertzea, hiru eremu desberdin sortuz: aisialdirako gunea, merkataritza-gunea eta arrantza-portua.

Bi jarduera aurreikusten dira:

1. Jarduketa. Portu-azpiegiturak modernizatzeko hasierako faseak bultzatzea, arrantza sektorearen baldintzak hobetzeko, salerosketa jarduera handitzeko eta aisialdiko nautika bultzatzeko. Horretarako: Artza kaian kirol-ontziak amarratzeko tokia handitzea, merkataritza-portuan pabiloi berriak eraikitzea, Frantxuan espazioak liberatzea eta erabilera berrietarako espazioak egokitzea eta izotz-fabrika berria eraikitzea.

2. Jarduketa. Ondare materiala eta ez-materiala berreskuratzea; ekonomia urdinarekin lotutako jarduera ekonomiko berriak bultzatzeko, atunari arreta berezia jarritz.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jarduera osagarriak

EPEren aurrekontutik kanpo gelditzen diren beste jarduera batzuk egingo dira, proiektua osatu arte.

4.4 4. Gai-arloa Aktibo natural, kultural, historiko eta identitarioak

Busturialdea-Urdaibaik aberastasun natural, historiko eta kultural bereizgarria du, eta horrek bizikaltate handiko eta erakargarri turistiko bihurtzen du. Euskadin erreferentziatzeko gune bat da, UNESCOk Biosferaren Erreserba izendatutako gune natural bakarra.

Bizkaiko helmuga turistiko nagusietako bat da. Kanpo-proiektzioa duten marka aitortuak eta baloratuak ditu, garrantzitsuenetarikoak: Urdaibai (natura), Gernika-Lumo (historia, euskal tradizioa, bakea), Bermeo (atuna, kontserbak, arrantza-tradizioa), Gaztelugatxe - Bermeo (turismoa) eta Mundaka (surfa).

Bere babeserako eta jasangarritasuna sustatzeko, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestutako Espazio Naturalerako Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari atxikitzen zaio 2019an, turismo iraunkorraren aldeko tokiko estrategia eta ekintza-plana praktikan jartzeko helburuarekin.

Gai-arlo honetan 2 trakzio proiektu sartzen dira.

11. Trakzio proiektua. Ondare historikoa, kulturala, naturala balioan jartzea

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Eskualdearen historiari, ondare naturalari eta nortasun-ezaugarriei balioa ematea.
- Turismo jasangarria erakartzea, eskualdean aberastasuna eta enplegu zuzenak eta zeharkakoak sortzen dituen sektorea izanda.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Trakzio proiektuak lau jarduera ditu.

1. Jarduketa. KALARE, Euskal emigrazioaren Interpretazio Zentroa. Euskadiko migrazio-prozesuari buruzko espazio berria, hiru alderdi batzen dituen: iragana, oraina eta etorkizuna. Helburua da KALARE kultura-erreferente bihurtzea, eta nazioartean Europako emigrazio-zentroen sarean integratzea. Proiektuak erakusketa-guneak, ikasketa-zentroa eta liburutegi espezializatu bat barne hartuko ditu, eta bisitariei kontsulta-zerbitzuak eskainiko zaizkie.

2. Jarduketa. Foruko erromatar herrixka. Proiektuak Foruan dagoen erromatar herrixkaren hondarrak indartu eta balioetsi nahi ditu. Horretarako, herriko apaiz-etxea (gaur egun erabiltzen ez dena) birgaitzea proposatzen da, bi helburu nagusirekin:

- Alde batetik, Foruko Erromatar Herrixkako aztarnategia bisitatzen duten pertsonak eta bertan lan egiten dutenak hartzea eta babestea.
- Bestetik, azken urteetako aurkikuntzen erakusketa eta azalpena hobetzea.

3. Jarduketa. Santimamiñeko Interpretazio Zentroa. Proiektuaren helburua 3D teknologia berritzea da, Santimamiñeko ermitaren barrutik kobazulora sartzeko esperientzia birtualaz gozatzeko.

Santimamiñeko Interpretazio Zentroa 2008an inauguratu zen. Bisita kobaren atarira sartuz hasten da, eta, ondoren, Santimamiñeko ermitaren barruan 3Dko betaurrekoekin sartzeko esperientziaz gozaten da. Teknologiaren bilakaerarekin, gaur egungo teknologia zaharkituta geratu da.

4. Jarduera. Kantera Gorria (Andrabide). Gauegiz-Arteaga eta Ereño artean dagoen Andrabideko harrobiaren paisaia berreskuratzea eta balioa ematea: hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-jardueretarako.

Aurrekontu arruntetik jorratuko diren jarduera osagarriak

Guggenheim Urdaibai. Garapenean, entzuteko prozesuaren esparruan

12. Trakzio proiektua. Gernikako Azoka eta lehen sektorea

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Lehen sektorea bultzatzea, tokiko produktuei balio erantsia sortuz.
- Kultura-ondarea eta tokiko tradizioa babestea, ikusgarritasuna handituz.
- Hiri-biziberritzea.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Eskualdean, Gernikako Merkatu Plaza ez da soilik hiri-ekipamendua bat: sinbolo kolektiboa da, gizartearen elkartzeko gunea eta lurraldeko motor ekonomikoa. Historikoki, Bizkaiko tokiko produktuaren merkataritzaren erreferente nagusietako bat izan da.

Aldi berean, ikuspuntu sozialetik, plazak erreferentziazko espazio publiko gisa funtzionatu du Gernikan, belaunaldien arteko harremanetarako eta tokiko tradizioaren transmisore gune gisa. Bestalde, nortasun kolektiboan ere funtsezko papera du: historiak sakonki markatutako udalerrri batean, azoka-plaza herriaren izaera komunitario, erresiliente eta eraldatzailearen adierazgarri da.

Testuinguru hori kontuan hartuta, proiektuaren helburua Gernikako Merkatu Plaza birgaitzea da, hiria, ekonomia eta gizartearen eraldatzeko palanka jardun dezan. Hiru helburu nagusi:

- Tokiko eta kalitatezko produktuaren merkaturatzea indartzea; baserritarrak, produktugileak eta nekazaritzako elikagaien eragile berriak integratuz.
- Hirigunearen eta merkataritza-jardueraren biziberritzea, plaza eragile ekonomikoa, sozial eta turistiko bihurtuz, eta jarduera hori udalerriko beste guneetara hedatuz.
- Merkatua espazio dinamiko, erakargarri eta moldakor bihurtzea, tradizioa eta modernitatea uztartuko dituen eta aukera profesional berriak sortuko dituen.

Hasierako urrats gisa, beharrezkoa izango da erakunde arteko mahai bat sortzea, proiektua definitzeko eta garatzeko ardura izango duena. Mahai horren bidez ziurtatuko da proiektuak lehen sektorean eta eskualdean dinamismo ekonomikoa sortuko duela eta eragin eraldatzailea izango duela.

4.5 Proiektu estrategikoko bideratzailea. Eskualdeko agentzia

Aurretik aipatu bezala, eskualdean beharrezkoa da sustapen ekonomikoa ikuspegi integral eta koordinatu batetik lantzea. Hori dela eta, eskualdeko garapen agentzia bat sortzea proposatzen da, Eskualdearen garapen sozioekonomiko iraunkorra lortzeko katalizatzaile gisa jardungo duena. Proiektu honek eskualdeko udalen eta eragile garrantzitsuen arteko lankidetzaren eskatzen du, eta haien ekimenez bultzatu behar da.

Helburuak eta eragin eraldatzailea

- Sustapen ekonomikoari eskualde-ikuspegitik lantzea, udalen arteko koordinazioa indartuz eta sinergiak sustatuz.
- Eskala eta profesionalizazioa irabaztea, proiektu berriak eta dimentsio handiagoko proiektuak sustatzeko, finantzaketa-iturri berrietara sarbidea hobetzeko, elkarriketarako gaitasuna sendotzeko eta proiektuaren planifikazio, kudeaketa eta jarraipena hobetzeko.
- Gaur egun udalak, Lanbide Ekimenak eta Bermeoaldeko Behargintzak egiten dituzten jarduerak bultzatu, eta gaur egun landu ezin diren jarduera berriak garatu.

Trakzio proiektuaren deskribapena

Proiektuaren definizio zehatza garatu behar bada ere, abiapuntu gisa, agentzia publiko-pribatu baten sorkuntza planteatzen da, gaur egun dauden tresnak bilakatuz eta baliabideak integratuz. Helburua da eraginkortasuna handitzea, sinergiak aprobetxatzea eta jarduera berriak ahalbidetzea.

- Sustatzaile posibleak (zehazteke): Eskualdeko udalak, Lanbide Ekimenak, Bermeoaldeko Behargintza; UBEko Patronatua; enpresa eragileak eta U-Bai Faktoria; Urremendi; LHko zentroak; Azti; BTWC...
- Jarduera-eremu posibleak (zehazteke): enplegua eta prestakuntza; ETE-entzako laguntza; ekintzailatza; inbertsioak eta enpresak erakartzea; turismoaren sustapena, landa-garapena, beste batzuk.

5. BESTE PROIEKTU ESTRATEGIKO BATZUK ETA BALIABIDE ARRUNTETATIK JORRATUKO DIREN JARDUERAK

5.1 Beste proiektu estrategiko batzuk

Trakzio proiektuez eta proiektu estrategiko bideratzaileaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eskualdearen erronkei erantzuten dieten eta aurrekontu arruntetatik finantzatuko diren beste jarduera estrategiko batzuk garatuko dituzte. Jarduera hauek eskualdearen garapen iraunkorra eta lehiakortasuna indartzen dute. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Trenbidea modernizatzea. Zugastietan bideak bikoiztea eta azpiegiturak hobetzeko eraikuntza-proiektuak idaztea.
- Uraren saneamendu sarea hobetzea. Muxika-Ajangiz arteko kolektore-zatia eta Lamiaran HUA funtzionamendua hobetzea.
- Ur-hornidurako sistema hobetzea. Busturialdea Mungiako Zadorra sistemako lehen mailako sarearekin konektatzea.
- Sollubeko errepidea hobetzea.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurumena lehengoratzeko jarduketak.

5.2 Baliabide arruntetatik jorratuko diren jarduerak

Era berean, EPEren trakzio proiektuen deskribapenean zehaztuta dagoenez (4. kapitulua), badira proiektu horiekin lotutako jarduerak, kudeaketa eta aurrekontu arruntetatik landuko direnak.

- Eskualdeko kalteberatasun handiko eta oso handiko auzoak leheneratzeko jarduketak (hirigintza-arkitektura- eta ingurumen-jarduketak).
- Eskualdeko etxebizitza publikoen beste sustapen batzuk Mundakan eta Ean.
- Eskualdeko gazteen artean etxebizitzaren arazoak aztertzeke proposamen-txosten diagnostikoa egitea.
- Eskualdeko Lanbide Heziketako zentroen eskaintza zabaltzeko eskaera eta bideragarritasuna aztertzea, gaur egungo espezializazioen barruan edo horiekin lotutako beste familia batzuetara bideratuta.
- Muxikako poligonoaren barne-urbanizazioa osatzea.
- Inamako lurzatiaren egokitzapena osatzea, lehengoratzeko eta birgaitzeko jarduketan bidez.
- Bermeoko portuko azpiegiturak modernizatzeko jarduketa gehigarriak.
- Guggenheim Urdaibai proiektua. Garapenean, entzuteko prozesuaren esparruan.

6. ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Azkenik, Eskualdeko Plan Estrategikoak 13 trakzio proiektu jasotzen ditu, dokumentuan zehar azaldutako mekanismoen bidez definitu direnak. Eskualdea eraldatzeko gaitasuna duten proiektu horiek, 78,4 milioi euroko inbertsioa izango dute 2030era arte; Bizkaiko Foru Aldundiak 54,4 milioi jarriko ditu eta Eusko Jaurlaritzak 24 milioi.

13. proiektuak, eskualdeko agentzia (proiektu estrategiko bideratzailea), ez du EPE aurrekonturik, baina Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailean dauden dirulaguntza-lerroak jaso ahal izango ditu.

TRAKZIO-PROIEKTUA		EPE AURREKONTUA		GUZTIRA
		EJ - GV	BFA - DFB	
1	Autzagane-Muxika errepidea		11.000.000€	11.000.000€
2	Muxika-Bermeo bidegorria		23.800.000€	23.800.000€
3	Garraio publikoa hobetzea		3.200.000€	3.200.000€
4	Kolektibo kalteberei laguntzea eta tokiko enplegua sustatzea		3.195.000€	3.195.000€
5	Etxebizitza publikoaren sustapena	1.000.000€		1.000.000€
6	Lanbide Heziketa indartzea	3.400.000€		3.400.000€
7	Eskualdeko industria - poligono berria Muxikan	7.000.000€	7.000.000€	14.000.000€
8	INAMAREN lurzatia berregokitzea	3.850.000€		3.850.000€
9	Eduki teknologiko handiko industria inbertsioa		2.500.000€	2.500.000€
10	Bermeoko portuaren eraldaketa eta ekonomia urdina bultzatzea	2.000.000€	500.000€	2.500.000€
11	Ondare historikoa, kulturala, naturala balioan jartzea	3.750.000€	2.650.000€	6.400.000€
12	Gernikako Azoka eta lehen sektorea	3.000.000€	500.000€	3.500.000€
GUZTIRA		24.000.000€	54.345.000€	78.345.000€

Gainera, kopuru horiei beste 225 milioi euro gehitu behar zaizkie, lehentasunezko zatik kontsideratu diren proiektuak, baina EPEren parte ez direnak garatzeko (5. Kapituluaren xehetasuna). Proiektu horien exekuzioa 2030etik gorakoa izan daiteke, eta kasu honetan, Foru Aldundiak 165 milioi euro jarriko ditu, eta Eusko Jaurlaritzak, 60.

7. GOBERNANTZA ETA PLANAREN AGINTE-KOADROA

7.1 Gobernantza-eredua

Gobernantzaren helburua EPE bizirik mantentzea da, Planaren ezarpenaren aurrerapena eta lortutako emaitzak monitorizatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko sistematika baten bidez. Gobernantza-ereduak Planaren epe luzeko ikuspegia eta izaera eraldatzailea mantentzera bideratuta egon behar du, trakzio proiektuen eraginkortasuna bermatuz eta abian jarritako jardueren eragin orokorra ebaluatuz.

Funtsezkoa da plangintzako esparru desberdinen ikuspegi integrala eta koherentea bermatzea, baita bultzatutako edo sustatutako plan ezberdinen arteko sinergiak sortzea ere.

Helburu horiek betetzeko, jarraian deskribatzen den gobernantza-eredua definitu da.

7.2 Gobernantza-ereduaren eragileak eta funtzioak

Bi mailako gobernantza-eredua ezartzen da: Talde Eragilea (lidergo-organoa) eta hedapenaren eta gauzatzearen arduradunak. Horrez gain, Idazkaritza Teknikoak gobernantzan lagunduko du; jarraipena, ebaluazioa eta Talde Eragileari informazioa ematea izango dira bere eginkizun nagusiak.

7.2.1 Talde Eragilea

Busturialdea-Urdaibaiko Talde Eragileak EPEren lidergo- eta ikuspegi-organoa izaten jarraituko du. Erabaki estrategikoetan oinarrituko da, Planaren ikuspegi orokorra eta orientazioa mantenduz.

Plangintza-faseko osaera bera izango du:

- Eskualdeko 20 udalerrietako alkateak.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritza.

Funtzio nagusiak honako hauek izango dira:

- EPEren helburu, ikuspegi eta printzipioen jarraipena eta betetzea zaintzea, bere exekuzio, jarraipen eta ebaluazio faseetan.
- Eskualdearen erronka eta etorkizuneko ikuspegiari dagokionez lortutako aurrerapen estrategikoaren jarraipena egitea, eta ezarritako lehentasunen egokitasuna baloratzea.
- Trakzio-proiektuen inguruan aurreikusitako jardueren eta konpromisoen aurrerapena gainbegiratzea.
- Egindako jarraipen-txostena baliozkotzea.
- EPEren garapenarekin lotutako komunikazio-ekintzetan parte hartzea.

7.2.2 Hedapenaren eta gauzatzearen arduradunak

Trakzio-proiektuen aniztasuna kontuan hartuta, administrazio eskudunek izango dute honako eginkizunen ardura:

- Proiektuak gauzatzeko ekintzak bultzatzea.
- Definitutako proiektuen plangintza eta aurrekontu-gauzatzea kudeatzea.
- Burututako jardueren, epeen eta baliabideen inguruko informazioa Idazkaritza Teknikoari helaraztea.

7.2.3 Idazkaritza teknikoa

EPEn jasotako jardueren ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa idazkaritza teknikoak egingo du.

Funtzio nagusiak honako hauek izango dira:

- EPERen aurrerapenen jarraipena egitea. Aurreikusitako helburu eta ekintzen aurrerapen-mailari buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzea.
- Jarraipen- eta ebaluazio-txostenak egitea, eta Talde Eragileari EPERen aurrerapenei, konpromisoari eta lorpenei buruzko informazioa ematea.
- EPERi lotutako informazio- eta komunikazio-edukiak lantzea, hala dagokionean.

7.3 Jarraipen-dinamika

Urteroko jarraipena proposatzen da, Talde Eragilearen bileretan gauzatuko dena. Bilera horietan honako hauek aztertuko dira: trakzio proiektuen urteko aurrerapena, desbideratze posibleak, eta hurrengo urteko proposamenak.

Horrez gain, EPE gauzatze-prozesuan zehar, Idazkaritza Teknikoak jarraipen-bilerak eta, beharrezkoa izanez gero, aparteko bilerak egingo ditu proiektu traktore bakoitza bultzatzeko ardura duten eragileekin. Bilera horien helburu nagusiak izango dira: proiektu bakoitzaren egungo egoera ezagutzea, helburu estrategikoen aurrerapen-maila ezagutzea, lan-ildoak eta ekintza-planaren gauzatzea egiaztatzea, ekintzen edo proiektuen plangintzan aldaketa posibleak identifikatzea.

7.4 Aginte-koadroa


Planaren jarraipena eta ebaluazioa bi mailatan egituratutako aginte-taula batean oinarritzen da: eskualdearen bilakaeraren adierazleak eta proiektu traktoreen jarraipenaren adierazleak.

Horrez gain, epe ertain-luzean eragina duten adierazleak bereizten dira, bi dimentsiotan:

- Eskualde-mailako eragin orokorra, EPEak jorratzen dituen gai-esparruetan izandako bilakaera kontuan hartuta: ekonomiaren suspertzea eta dibertsifikazioa, enplegua eta prestakuntza, gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak, hiri- eta ingurumen-berroneratzea, lurraldea eta iraunkortasuna. Adierazle hauek Busturialdea-Urdaibai, Bizkaia eta Euskadi mailan neurtuko dira, Busturialdea-Urdaibairen egoerak Bizkaia eta Euskadi erreferentziarekin alderatuta zein neurritan aldatzen den jakiteko.
- Trakzio-proiektuen eragin espezifikoak eskualdean. Proiektu bakoitzerako ad-hoc adierazleak zehazten dira. Jarraian proposatutako adierazleak orientazio-balioa dute, eta jarraipen-prozesuan zehar egokitu eta eguneratu daitezke.

Halaber, epe laburreko adierazleak ere ezartzen dira, maila operatiboagokoak, eta EPERen trakzio-proiektuei zuzenean lotutakoak. Kasu guztietan, proiektuak gauzatzeko egindako ahalegina gauzatutako gastuaren / inbertsioaren eta aurrekontuaren betetze-mailaren arabera neurtuko da, aurreikusitakoarekin alderatuta..

Busturialdea-Urdaibaiko EPERen aginte-koadroaren egitura



7.4.1 Eskualdeko bilakaeraren adierazleak

GAI-ESPARRUA	Adierazlea	Deskribapena	Uneko balioa		
			Busturialdea - Urdaibai	Bizkaia	Euskadi
Ekonomia suspertzea eta dibertsifikatzea	BPG	BPG uneko prezioetan	1.441.900 (2022)	44.068.322 (2022)	86.714.411 (2022)
	BPG-aren pisua	Busturialdea - Urdaibaiko BPG-aren pisua (uneko prezioak) Bizkaiko BPG-aren guztizkoan	3,3% (2022)	-	-
	Biztanleko BPG	Biztanleko BPG uneko prezioetan	31.211 (2022)	38.616 (2022)	39.587 (2022)
	Industria-sektorea. Industria-sektorearen BEGd-aren pisua	Industria-sektorearen (manufaktura-industria) BEGd-ren pisua guztizkoarekiko	15,9% (2022)	17,2% (2022)	21,4% (2022)
	Lehen sektorea. Lehen sektoreko BEGd-aren pisua	Lehen sektoreko BEGd-aren pisua (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza)	17,0% (2022)	1,0% (2022)	0,9% (2022)
	Enpresa-ehuna. 50 langile baino gehiagoko enpresen kopurua	50 langile baino gehiagoko enpresen kopurua	40 (2024)	1.302 (2024)	2.660 (2024)
	Enpresa-ehuna. 50 langile baino gehiagoko enpresa kopuruaren pisua	50 langiletik gorako enpresen kopurua, Bizkaiko 50 langiletik gorako enpresen guztizkoaren aldean	3,1% (2024)	-	-
	Ekintzailtza-maila	Establezimendu berrien sorrera-tasa 1.000 biztanleko	5,3% (2023)	6,1% (2023)	6,0% (2023)
	Jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruak	Jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruaren ehunekoa udal-lurzoru osoaren gainean	0,8% (2024)	2,3% (2024)	1,9% (2024)
I+Gko gastua / BPG	Lurraldeko BPGrekiko I+Gko gastuaren % (Ikerketa eta garapeneko guztizko gastu gordinak barne hartzen ditu: I+Gko enpresa-gastua, I+Gko goimailako hezkuntzako gastua, I+Gko gastu publikoa eta irabazi-asmorik gabeko I+Gko sektore pribatuaren gastua)	1,8% (2022)	1,9% (2022)	2,1% (2022)	
Enplegua eta prestakuntza	Langabezia-tasa	16-74 urteko biztanleria langabea 16-74 urteko biztanleria aktiboarekin konparatuta	6,9% (2024)	8,2% (2024)	7,4% (2024)
	Emakumezkoen langabezia-tasa	16-74 urteko emakumezko langabeak 16-74 urteko emakumezko aktiboekin konparatuta	7,7% (2024)	9,5% (2024)	8,7% (2024)
	Prestakuntza-maila. Unibertsitate-ikasketak	10 urtetik gorako biztanleriaren artean, unibertsitate-ikasketak dituen biztanleriaren ehunekoa	26,9% (2021)	17,6% (2021)	26,7% (2021)
	Prestakuntza-maila. Lanbide Heziketa	10 urtetik gorako biztanleriaren artean, lanbide-heziketa mailako ikasketak dituen biztanleriaren ehunekoa	19,0% (2021)	19% (2021)	20% (2021)
	16-24 urteko gazteen okupazio-tasa	16-24 urte bitarteko biztanleria enpleguaren ehunekoa guztizkoarekiko	25,8% (2023)	28,9% (2023)	31,4% (2023)
Gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak	Biztanleriaren bilakaera	Biztanleriaren urte arteko aldakuntza (%)	0,50% (2024)	0,53% (2024)	0,51% (2024)
	Herrigune nagusietako biztanleria	Gernika-Lumoko eta Bermeoko biztanleriaren ehunekoa, Busturialdea-Urdaibai guztizkoarekiko	73% (2024)	-	-
	Biztanleria adin-tarteen arabera. >65 urte	65 urte eta gehiagoko biztanleak guztizko biztanleriari dagokionez (%)	24,8% (2024)	24,4% (2024)	24,0% (2024)
	Biztanleria adin-tarteen arabera. <19 urte	0-19 urteko biztanleak guztizko biztanleriari dagokionez (%)	17,8% (2024)	16,9% (2024)	17,7% (2024)
	Errenta pertsonal erabilgarria	Errenta pertsonal osoari Gizarte Segurantzako gastuak eta kuota likidoa edo konturako atxikipenak (€) deskontatzearen emaitza da	19.955e (2022)	20.355 (2022)	20.855 (2022)
	Errenta pertsonal erabilgarria. Emakumezkoak	Errenta pertsonal osoari Gizarte Segurantzako gastuak eta kuota likidoa edo konturako atxikipenak (€) deskontatzearen emaitza da	16.852e (2022)	16.626 (2022)	17.005 (2022)
	DSBEren hartzaileak	Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak mila biztanleko (% biztanle)	20,4% (2023)	28,4% (2023)	25,4% (2024)
	DSBEren hartzaileak. Emakumezkoak	Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren emakume onuradunak milako (% emakumeak)	22,6% (2023)	31,6% (2023)	28,3% (2023)
Hiri- eta ingurumen-berroneratzea	Zaugarrtasun oso handiko eta ertain-handiko ataletan bizi den biztanleria	Errola-atal oso altuetan edo kalteberatasun ertain-altukoetan erroldatutako pertsonen kopuru absolutua	8.603 personas (2023)	-	-
	Etxebizitzaren egoera	Etxebizitza kopuru totala	27.046 (2023)	560.845 (2023)	1.081.647 (2023)
	Etxebizitzaren egoera	Familia-etxebizitzaren batez besteko antzintasuna	53,9 años (2023)	50,3 años (2023)	48,7 (2023)
Lurraldea eta iraunkortasuna	Aire kutsadura	Partikulen kontzentrazioa (PM2,5 partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa µgr/m3-tan)	5,5 (2023)	9,1 (2023)	8,8 (2023)
	Lurzoru urbanizaezina (EKZPk arautua)	Lurzoru urbanizaezina udal-lurzoru guztiaren gainean (%)	94,9% (2024)	89,0% (2024)	91,4% (2024)

7.4.2 Ahalegin- eta emaitza adierazleak

Emaitza adierazleak komunak izango dira trakzio proiektu guztietan. Zehazki, honako hauek neurtuko dira:

- Egindako inbertsioa/gastua.
- Aurreikusitako aurrekontuarekiko gauzatutako aurrekontuaren %.

Emaitza-adierazleak, berriz, proiektu bakoitzaren arabera zehaztuko dira, eta EPEren ezarpenen zehar osatuko dira, gobernantza-sisteman egindako jarraipenaren arabera.

Adibide gisa, jarduera- eta emaitza-adierazle posibleen taula bat aurkezten da trakzio-proiektu bakoitzerako.

TRAKZIO-PROIEKTUA		Jardueraren eta emaitzen adierazle posibleak	
1	Autzagane-Muxika errepidea	<ul style="list-style-type: none"> Esku hartutako tartean erregistratutako oinezkoen istripu edo gorabeheren murrizketaren ehunekoa (12 hilabete igaro ondoren) 	
2	Muxika-Bermeo errepidea	<ul style="list-style-type: none"> Bidegorriaren eguneroko erabiltzaile-kopurua Muxika - Bermeo ardatzeko motordun trafikoaren gutxitze zenbatetsia (%) 	
3	Garraio publikoa hobetzea	Eskariaren araberako garraioa eskuinaldean	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzuak estalitako udalerrien/auzoen kopurua Eskariko garraio-sistema berriaren eguneko batez besteko erabiltzaileen kopurua Eskatutako garraioaren erabiltzaileen gogobetetze-maila (%)
		Mundakako autobus geltoki berria	<ul style="list-style-type: none"> Estazioaren erabiltzaileen gogobetetze-maila (%)
4	Kolektibo kalteberei laguntzea eta tokiko enplegua sustatzea	"Rehaviva" proiektua	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza-ibilbiderako hautatutako gazteen kopurua Prestakuntza-ibilbidea osatzen duten gazteen kopurua (guztizkoaren %) Sortutako zuzkidura-apartamentuen kopurua
		Tokiko enplegu plana	<ul style="list-style-type: none"> Programan izena emandako pertsonen kopurua Planaren ondorioz enplegatutako pertsonen kopurua
5	Etxebizitza publikoaren sustapena	<ul style="list-style-type: none"> Eraikitako etxebizitzaren kopurua Zenbat etxebizitza entregatu eta okupatu diren alokairu publikoan 	
6	Lanbide Heziketa indartzea	<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza-ziklo indartu edo zabalduen kopurua Barrutialde eta Nautika Eskolako matrikula guztien hazkundera (kopurua eta % hazkundera) Eskualdeko enpresek sinatutako lankidetzaz hitzarmen berrien kopurua 	
7	Eskualdeko industria-poligono berria Muxika	<ul style="list-style-type: none"> Poligono berrian instalatzen edo birlokalizatzen diren tokiko enpresen kopurua Erakarrirako enpresa berrien kopurua (eskualdetik kanpokoak) Industrialdean instalatutako enpresek sortutako enplegua (langile kopurua) 	
8	INAMAREN lurzattia berregokitzea	<ul style="list-style-type: none"> INAMAKO lursaila berregokitzeari lotutako enpresa-inbertsio pribatua (€) Partzelan instalatzen edo birlokalizatzen diren tokiko enpresen kopurua Partzelan instalatzen diren erakarrirako enpresa berrien kopurua (eskualdetik kanpokoak) Industrialdean instalatutako enpresek sortutako enplegua (langile kopurua) 	
9	Eduki teknologiko handiko industria inbertsioa	<ul style="list-style-type: none"> Trakzionatutako enpresa-inbertsio pribatua (€) Proiektuak zuzenean sortutako lanpostuen kopurua 	
10	Bermeoko portuaren eraldaketa eta ekonomia urdina bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> Abian jarritako/lagundutako ekonomia urdinarekin lotutako jarduera/azpiegitura/proiektuen kopurua 	
11	Ondare historikoa, kulturala, naturala balioan jartzea	Kalare	<ul style="list-style-type: none"> Urteko bisitari-kopurua, guztira
		Foruko erromatar herrixka	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko urteekiko bisitari-kopuruaren hazkundera (%) Esperientzia positiboki baloratzen duten bisitarien ehunekoa (inkestetan)
		Santimamiñe	<ul style="list-style-type: none"> Aurreko urteekiko bisitari-kopuruaren hazkundera (%) Esperientzia positiboki baloratzen duten bisitarien ehunekoa (inkestetan)
		Kantera Gorria	<ul style="list-style-type: none"> Urteko bisitari-kopurua, guztira Esperientzia positiboki baloratzen duten bisitarien ehunekoa (inkestetan) Urtean antolatutako kultur ekitaldien, tailerren edo eskola-bisiten kopurua
12	Gernikako Azkoa eta lehen sektorea	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde arteko mahaiaren eraketa (bai/ez) Plazan saltzen duten tokiko ekoizleen kopuruaren igoera (%) Plazan urtean egindako ekitaldien kopurua 	

* Adierazleak proiektu bakoitza hedatzeko eta gauzatzeko arduradunekin zehaztuko dira.

8. ERREFERENTZIAK

- ¹ Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz; Eustat. Biztanleen udal-estatistika.
- ² Sabi, 2024. Eskuragarri dagoen azken urteko datuekin egindako azterlana.
- ³ Eustat eta Udalplan (Eusko Jurlaritzza).
- ⁴ Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz; Eustat (Berrikuntzaren inkesta).
- ⁵ Bizkaiko Batzar Nagusiak
- ⁶ Bakearen Museoa Fundazioa
- ⁷ Bizkaiko Foru Aldundia
- ⁸ Bizkaiko Foru Aldundia
- ⁹ Bizkaiko Foru Aldundia. Turismoa Bizkaiko eskualdeetan.
- ¹⁰ REATE. Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa.
- ¹¹ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak.
- ¹² Eustat. Eusko Jurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
- ¹³ Eustat. Nekazaritza Errolda.
- ¹⁴ Eustat. Nekazaritza Errolda; EAEko Baso Inbentarioa 2020.
- ¹⁵ Eustat. Jardueraren udal-estatistika.
- ¹⁶ Eustat. Jardueraren udal-estatistika.
- ¹⁷ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak. Ekonomia/Lehiakortasuna.
- ¹⁸ Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza.
- ¹⁹ Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz; Eustat. Biztanleen udal-estatistika.
- ²⁰ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak.
- ²¹ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak.
- ²² Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak. Ekonomia/Lehiakortasuna.
- ²³ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak. Gizarte-kohesioa/Bizi-kalitatea.
- ²⁴ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak. Ekonomia/Lehiakortasuna.
- ²⁵ Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Etxebizitzak.
- ²⁶ Eusko Jurlaritzza. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.
- ²⁷ Eusko Jurlaritzza. Jasangarritasunaren udal adierazleak. Gizarte-kohesioa/Bizi-kalitatea.
- ²⁸ Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz; Bizkaiko Foru Aldundia.
- ²⁹ Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda.
- ³⁰ Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokia-Bizkaia Orekan Sakonduz.
- ³¹ Eusko Jurlaritzza. GeoEuskadi bisorea.
- ³² Eusko Jurlaritzza. GeoEuskadi bisorea.
- ³³ Eusko Jurlaritzza. URA - Uraren Euskal Agentzia.
- ³⁴ Bizkaiko Foru Aldundia. Azpiegituretako eta Lurralde Garapeneko Saila.
- ³⁵ Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaibus.
- ³⁶ Eustat. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak.
- ³⁷ Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Etxebizitzak.

³⁸ *Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Uraren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritz).*

³⁹ *Eusko Jaurlaritz. Hiri-kalteberatasunaren inbentarioa.*

Gainera, Eskualdeko Plan Estrategikoa egiteko, eragile publiko eta pribatuen argitalpen eta lan-dokumentu ugari erabili dira. Eskualdeko Plan Estrategikoarekin lotura zuzena duenez, Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Aztertegiaren argitalpenak jasotzen dira jarraian. Erakundeak lantaldearen esku jarri zituen bere ikerketak, eta bere ekarpenekin lagundu zuen prozesuaren une desberdinetan.

- *Busturialdea-Urdaibairako plan ekonomiko eta ekosozial estrategikoaren proposamen gizarte zibilaren aldetik. 2025*
- *Un desarrollo económico y ecosocial para Busturialdea-Urdaibai. Ramón Zallo Elgezabal. 2024*
- *Busturialdea-Urdaibai eskualdeko ikuspegi integrala. Xabier Arana Eiguren, Rosa de la Asunción Sanz eta Ramón Zallo Elgezabal. 2021*
- *El declive económico de Busturialdea-Urdaibai: dilemas y propuestas. Ramón Zallo Elgezabal. 2021*